

hh
hik hasi

Birsortu

Herriko iturri bat berreskuratuta Lizarran

'Izan' disko berria

Elikatu, hezi, ekin

Halloween ala Gau Beltza Euskal Herrian?

'Zaldi urdina' antzezlan

Nerea Sorondo

3
4
2



BENITO LERTXUNDI

Kiwi hartza

Gauthier David eta Claire de Gastold



Askari bat mozorrotuta.
Neskatxo bat hartz azalaren azpian.
Basoko haurrak, bitxiak eta bihurriak.
Arrakastarik izango ote du festak?



AURKIBIDEA

GAIA / 10

BIRSORTU

Haur txikien esperimentaziorako eta sormenerako grina aberasteko helburuarekin abiatuko dute Hik Hasik eta Emausek Birsortu proiektua. Italiako Remida zentroa eredu hartuta, hainbat enpresatan zabortzat duten materiala berreskuratu eta ikastetxeentzat erabilgarri jarriko da. Debagoiena eskualdean abiatuko da Birsortu proiektua eta Arrasateko Emausen eraikinean irekiko ditu ateak bere biltegiak.

ELKARRIZKETA / 16

BENITO LERTXUNDI

'Zuhaitzak landatzen zituen gizona' ipuin musikatua kaleratu du kantari oriotarrak. Ipuin xume bezain sakona, hortik abiatuta bizitzaz eta gauza askotaz hitz egiteko aukera zabaltzen duen horietako. Horretantxe aritu da elkarrizketa honetan, bizitzaz, zorientasunaz, askatasunaz, heziketaz, eskolaz eta kulturaz hausnartzen, besteak beste. Kantaria ez ezik, pentsalaria ere badelako Benito Lertxundi.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Mikel Agirrezabala, Ane Aranburu, Ainhoa Azpiroz eta Ainara Gorostitzu.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Joxe Mari Auzmendi, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanado, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia. **Administrazioa:** Uxue Ugartemendia. **Diseinua:** Grafik.

Maketazioa: Xangorin. **Inprimategia:** ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2019-11-25). **Kopurua:** 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Xuaren beldurrak

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Birsortu

16 ELKARRIZKETA
BENITO LERTXUNDI

“Ezagutzea besteen bideetan ibiltzea da eta hor arrotza zara beti; jakitea, berriz, zeure bideari eustea da”

26 ESPERIENTZIAK

Herriko iturri bat berreskuratu dute Lizarran

30 EKARPENAK 1

Iritsi da gelditzeko eta lasaitzeko unea

32 EKARPENAK 2

Elikatu, hezi, ekin

36 GALDEIDAZU
JOSU OZAITA

Halloween ala Gau Beltza Euskal Herrian? Nola ospatu?

39 ARGITALPENAK


40 PROPOSAMENA

'Zaldi urdina' antzezlan

42 ATZEKO ATETIK

Nerea Sorondo





Xuaren beldurrak

editoriala

BELDURRA EMATEN DU, ETIKA KONTUA DA, GIZALEGE GAIA DA: DATORREN URTARRILEAN XUA LASAGABASTER URANGAK 3 URTE EGINGO DITU, PICASSENTEKO ESPETXEAN, ETA GURASOENGANDIK BEREIZIKO DUTE.



Beldurra, izua, ikara, sarrakioa, laborrria... hiztegiaren ugaltasunak erakusten ditu emozioaren xehetasunak. Beldurrak dimentsio ugari baititu.

Izuak urte anitz baititu, giza espezieak berak baino gehiago, azaroaren 15 eta 16an Bilbon eta Donostian Hik Hasik antolaturiko *Txikitako Beldurrak* jardunaldian ikasi genuenez.

Ikasi genuen ikara bizirauteko gaitasun bat dela, estimulu naturalek eta ikasiek aktibatzen dutela eta estrategia sinpleak —bezain konplexuak— erakutsi zizkiguten gainditzeko: zaindu haurren gorputza, zaindu ingurunea, ez abandonatu... aurreikusitako berritasunek beldurra eragin dezaketela, prebenitu beraz... eta eman segurtasuna haur txikiei.

Myrtha Chokler psikomotrizista argentinarra izan zen hizlarietako bat, eta bere Amerika jatorrian bizi duten egoera beldurgarria —“Peru, Bolivia, Txile, Ekuador kiskaltzen ari dira!”— hizpide harturik ikarari aurre egiteko hezkuntzaren etika aldarrikatu zuen. Katty Homar psikomoztrizista katalanak, berriz, bere saioa ixteko beldurra izan behar dugula nabarmendu zuen: “Beldurtzeko arrazoiak ditugu estatuan”, adierazi zuen, zeharka eskuin muturraren gorakadari erreferentzia eginez.

Zaintzea, beldurra prebenitzea eta gainditzeko segurtasuna ematea ekintza etikoa zirela aldarrikatu zuen Choklerrek. Eta hitz horiek ekarri nahi ditugu Hik Hasi egitasmo pedagogikoko kideok editorial honetara, hezkuntzaren ikuspuntu etikoagatik ere haur txiki baten zaintza eskubidea aldarrikatu nahi dugu, beldurrak gainditzeko gurasoen ondoan egoteko eskubidea berma dadin, *Xua, gurasoekin etxera!* eskatzen dugu.

Etika kontua da. Gizalege gaia da: datorren urtarrilean Xua Lasagabaster Urangak 3 urte egingo ditu. Xua 2017ko urtarrilaren 19an jaio zen, Picassenteko espetxean (Valentzia). Bere amarekin, Hik Hasiko kide Olatz Lasagabasterrekin bizi da eta noizbehinka elkartzeko aukera izaten du espetxe berean preso dagoen bere aita Patxirekin. Hilabete berru hiru urte beteko ditu Xuak eta Espainiako legeak hala aginduta, bere gurasoengandik bereiziko dute eta ezin izango ditu ikusi bisitetan ez bada. Xuarekin, Olatz eta Patxi ere, zigorraren 3/4ak beteta dituztelarik, etxean izan daitezela aldarrikatzen dugu!

Ba al da ume txiki batentzat ezer beldurgarriagorik gurasoak milaka kilometrotara preso edukitzea baino?

“Proiektu kolektiboen ilusioa behar dugu, dugun normalitatea onartuz gero korrontek eramango gaitu”

Joseba Sarrionandia



OPARO JOAN DIRA TXIKITAKO BELDURREN INGURUKO JARDUNALDIAK

700 lagun baino gehiagok parte hartu zuten azaroaren 15ean Bilbon eta 16an Donostian egin ziren Hik Hasiren udazkeneko jardunaldietan. Txikitako beldurrak izan zituzten hizpide hizlariak. Jardunaldietan parte hartu zutenek zuzenean entzun zituzten Myrtha Chokler, Jon Arana eta Katty Homar psikomotrizistek eta Alexander Barandiaran MUko HUHEZIKo irakaslea.

Hik Hasik datozen asteotan zabalduko ditu jardunaldietako edukiak. *Hazi Hezi* aldizkariaren abenduko zenbakian erreportaje nagusia hartu du gaiak eta datozen asteetan Hik Hasiren webgunean argitaratuko dira jardunaldiko bideoak.

'SKOLAE' PROGRAMA SARITU DUTE, "INDARKERIA MATXISTAREN AURKA SENTSIBILIZATZEAGATIK"

Espainiako Gobernuaren berdintasun Ministerioak Nafarroako Gobernuaren *Skolae* programa saritu du, "indarkeria matxistaren aurka hezi eta sentsibilizatzeagatik". Azaroaren 25ean, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, jaso zuen saria *Skolae*k Carmen Calvo Espainiako Gobernuaren Berdintasun Ministerioako jarduneko ministro eta presidenteordearen eskutik.

Skolae UNESCOn saria ere jaso zuen iragan urrian. Nazio Batuen Erakundearen Hezkuntzako atalak "kultura, erlijio edo sexu nortasuna edo joera dena delakoa izanda ere, haurrei berdintasunerako eskubide indibiduala gauzatzeko" ematen dituen tresnak nabarmendu zizkion orduan *Skolae*ri, eta prebentzio-lana ere egiten duela azpimarratu zuen.

FRANTZIAKO GOBERNUAREN ERABAKIAK KRITIKATZEKO MOBILIZAZIOAK

Hizkuntza gutxituetako ordezkariak mobilizazioa eguna zuten azaroaren 30ean Parisen. "Ikasgaien erreforma lizeoetan, Batxilergoaren erreforma, brebeta azterketa osorik euskaraz egin ezina..." Euskalgintzako eragileen arabera, horiek adibide batzuk besterik ez dira, baina, oro har, Frantziako Gobernuko Hezkuntza ministro karguan Jean-Michel Blanquer denetik, "gogortu" egin dira estatu osoan "lurralde hizkuntzen" kontrako erasoak. Horiek salatzekeo deitu dute mobilizazioa, Euskal Konfederazioak deituta, beste hainbat hizkuntza gutxitutako ordezkariekin batera. Mobilizazioan parte hartzeko, Ipar Euskal Herri osotik atera dira autobusak.

Gure Hizkuntzak Bizi Daitezen kolektiboak sinadura bilketa bat du martxan, Parisen hedatu nahi dituzten aldarrien aldeko atxikimenduak jasotzeko. *Change.org*-en ari dira egiten sinadura bilketa.



HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

AKORDIOA IRITSI DA KRISTAU ESKOLARA BI URTEKO LAN GATAZKAREN ONDOREN



Bi urteko lan gatazkaren ondoren ituna iritsi da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxe erlijiosoetara. Hilabete guztirako greba deituta bazegoen ere, iragan den azaroaren 9an orduetako bileraren ostean sinatu zuten bost orrialdeko akordioa Kristau Eskola sareak eta ELA, Steilas eta CCOO sindikatuek. Alderdi horiekin batera aritu dira bileretan Eusko Jaurlaritza eta Lan Harremanen Kontseiluko kide bat bitartekari lanak egiten.

Sindikatu horien esanetan, aintzat hartu dituzte haien aldarri gehienak, eta akordio "ona" sinatu dute, adostasunean jaso dituztelako protesten aldarrikapen nagusiak: soldatak igotzea, ikasleen matrikulazioa jaistearen eraginez postua galdu dutenei beste leku bat topatzeko irizpideak ezartzea, ordu osagarriak kontuan hartzea, emakumeak nagusi diren arloetako egoera hobetzea eta erretiro aurreratua bermatzea.

Edonola ere, akordioa sinatzerakoan ez da batasun sindikalik egon: LABek ez du sinatu. ELA sindikatuak du gehiengoa kristau eskolan eta LABek sindikatu horren jokabidea salatu du, esanez hark bakarrik parte hartu duela gobernuarekin eta patronalarekin egindako negoziazioetan, eta gainerako sindikatuek ez dutela batere proposamenik ikusi azken unera arte. Eusko Jaurlaritzaren jarrera ere kritikatu du, hauteskunde kanpaina iritsi denean bakarrik inplikatu dela esanez. UGT sindikatuak ere ez du sinatu akordioa, azken protestetan eta greba deialdian ez baitzuen bat egin, gehiegizko irizita.

LAN ESKAINTZA PUBLIKOAK 2020RAKO EAE-N ETA NAFARROAN

2020. urtean 1.707 lanpostu publiko eskainiko dira EAEn eta Nafarroan hezkuntza publikoan aritzeko. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Lan Eskaintza Publiko bat egingo du 2020an Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoentzat. Guztira 1.148 postu izango dira. Horietatik 1.021 lanpostu izango dira Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat eta 127 Lanbide Heziketakoentzat. Lanpostu gehien Matematikan (147) Geografia eta Historian (116) eta Gaztelanian (115) eskainiko dute. Hurrena Fisikan eta Kimikan (81), Euskararen (55) eta Filosofian (45). Horrez gain, Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegorako 28 plaza eskaintzen dituen deialdia ere argitaratu da. Karrerako irakasle funtzionarioei zuzenduriko deialdiaren hautaketa probak 2020ko udaberrian burutuko dira.

Hezkuntza Sailak 2020. urte hasieran egingo du deialdia, eta bertan zehaztuko dira izena emateko epeak, proben egunak eta ezaugarriak, programazio didaktikoa aurkezteko egunak, eta abar.

Nafarroako Gobernuak ere bi foru dekretu onartu ditu, 559 plazako lan eskaintza publiko bat argitaratzeko. Horietatik 337 unibertsitatez kanpoko irakasleei dagozkie, eta 169, berriz, Administrazio Guneari. Gainera, 53 plaza erreserbatzeko txanda dago, 46 desgaitasuna duten pertsonentzat (34 Hezkuntzan eta 12 Gune Administrazioan) eta beste 7 plaza genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat (guztiak Gune Administrazioan).



2020KO EUSKARALDIRAKO MAKINERIA MARTXAN DA DAGOENEKO

Aurkeztu berri dute hizkuntza ohiturak aldatu eta praktika berriak sustatzea helburu duen ariketa soziala: Euskaraldia. 2020aren amaieran egingo dute egitasmoa bigarren aldiz eta hamabost egunez luzatuko da: azaroaren 20tik abenduaren 4ra.

"Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan" izango da leloa eta dinamika zabaldu eta sakontzearekin batera, eragina handitzea izango du helburu.

Pixkanaka izango da Euskaraldian parte hartze-ko izen-ematea. Irailean zabaldu zuten herri batzordeek izena emateko

epea eta azaroan ireki berri dute entitateek ariguneak sortu eta izena emateko aukera. Euskaraldiaren webgunean izango dute horretarako abagunea. Azkenik, 2020ko irailean zabalduko dute herritarrentzat Euskaraldian izena eman eta ahobizi edo belarriprest rolak hautatzeko epea.



'HIK HASI' ETA 'HAZI HEZI' DURANGOKO AZOKAN IZANGO DIRA

Abenduaren 5etik 8ra ireki-ko ditu ateak Durangoko 54. Disko eta Liburu Azokak eta Hik Hasiko mahaia bertan izango da: Artekale, 18an. Labetik atera berri izango dira *hik hasi* aldizkariaren 243. zenbakia eta *Hazi Heziren* 31. zenbakia, biak abendukoak. Horiez gain, beste bi berrikuntza ere izango ditu Hik Hasik aurtan

Durangon: *Euskal Herrian erreferente diren pedagogo sortzaileak* liburua eta *Izan* CDa. Azken horrek Marina Pintos piano-jotzaile eta yoga eta meditazio irakaslearen eskutik, lasaitzeko, kontzentratzeko eta erlaxatzeko musika eta ariketa gidatuak biltzen ditu. Horrekin batera, hezkuntzan, irakaskuntzan eta heziketan lagungarri izan daitezkeen hainbat material egongo dira mahaian.



HEIZEK VIII. JARDUNALDI PEDAGOGIKOAK EGINGO DITU ABENDUAREN 12AN



HEIZE Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkartearen Federazioak VIII. Jardunaldi Pedagogikoak egingo ditu abenduaren 12an EHUren Donostiako Barriola eraikinean. *EHU hezkuntza ikerketa aplikatua ikastetxeen hobe-kuntzan* izango da aurtengo ekitaldiak izango duen izenburua. Antolatzaileek aipatzen dutenez, 2018an HEIZEk EHUko Gipuzkoako Hezkuntza fakultatearekin batera elkarlan dokumentu bat izenpetu zuen: "Horren baitan aurrerantzean sinergiak sortu nahi ditugu eta sistemarentzako onurarako izango diren jarduerak aurrera eramatea biltzen dugu". Eta ildo horretan kokatu dituzte aurtengo jardunaldiak.

Goiz parterako hainbat hitzaldi eta mahai-inguru antolatu dituzte, eta bazkalostean egingo dute HEIZE elkar-tearen batzar nagusia, 15:30ean hasita.

Hitzaldien inguruko informazio gehiago edota jardunaldietan izena emateko www.heize.eus webgunera jo beharko da.

HIZPIDE IZANGO DA

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTSEN 'BIZI DANTZA' IKUSKIZUN BERRIA HERRIZ HERRI



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak herriz herri dabilta euren azken antzezlanarekin: *Bizi dantza*. Eskoriatzan egin zuten lehen saioa azaroaren 9an eta harrezkero euskal lurraldeetako hamaika txokotako haur eta gurasoekin izan dira ikuskizun berriarekin. Tartean zenbait gorabehera ere izan dituzte. Izan ere, Iruñeko Udalak -Navarra Sumako Enrique Maia alkatea buru duenak- debekatu egin zuen hiru pailazoen azaroaren 29an Iruñeko Baluarte aretoan eskaini behar zuten *Bizi dantza* ikuskizuna. Debekuaren aurrean Nafarroako Arartekoak babestu egin ditu Pirritx, Porrotx eta Marimotots eta pailazoen aldeko babesa adierazteko hainbat dinamika izan dira Iruñean zein gainerako herrietan. Nafarroako Kontseiluak ere kontratua etetea ez dela bidezkoa esan du. Halere, aholku-emaile publikoaren txosten juridikoari entzungor egin eta debekuari eutsiko diola iragarri du.

Oztopoak oztopo, pailazo taldeak emanaldiak ematen jarraituko du eta hauek dira urtarrila bitartean zehaztuta dituzten emanaldiak:

Abenduak 1, Usurbilen
Abenduak 3, Irurtzunen
Abenduak 13, Amurrión
Abenduak 14, Ordizian
Abenduak 15, Zeanurín
Abenduak 18, Zizur Nagusian
Abenduak 20, Barakaldon
Abenduak 21, Getxon

Abenduak 23, Azkoitian
Abenduak 26, Durangon
Abenduak 27, Bermeon
Abenduak 29, Bilbon
Abenduak 30, Zarautzen
Urtarrilak 2, Gasteizen
Urtarrilak 4, Ondarrun
Urtarrilak 5, Lezon

Jarraipena egiteko eta informazio gehiagorako www.katxiporreta.eus webgunera jo daiteke.

XUA GURASOEKIN ETXERATZEKO ESKAERAK UGARITU DIRA



Xua Gurasoekin Etxera ekimenak ekintza gehiago egiten darrai Xua motxiladun haurra bihur ez dadin. Xua Usurbildik 600 kilometrora, Valentziako Picassenteko espetxean bizi da Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga gurasoekin. Urtarrilaren 19an 3 urte beteko ditu eta gurasoengandik bereiziko dute, nahiz gurasoek espetxe zigorraren hiru laurdenak beteak izan eta dagoeneko Xuarekin batera kalean behar zuten.

Xua Gurasoekin Etxera ekimenak dagoeneko 1.600 atxikimendu bildu ditu Xuarekin batera gurasoak etxera etor daitezen eskatzeko. Gurasoen jaioterriko udaletan (Orion eta Usurbilen) mozioak onartu dituzte gauza bera eskatzeko. Arartekoarekin ere egon dira eta "gizatasunagatik eta umearen hobebeharra lehenetsita, erabakiak hartzea dagokien erakunde eta instituzioetara zuzentzeko prestutasuna agertu du". Ekimeneko kideak Gipuzkoako Batzar Nagusieta eta Gasteizko Legebiltzarrera ere joatekoak dira.

Gabonetako egunetan Sarek mobiliazioak antolatu ditu hiriburu guztietan. Abenduaren 28an Donostian 12:00etan egingo den manifestazioan, besteak beste, Xua eta haren gurasoak eskatzeko eskatuko da, Xua motxiladun haurra bihur ez dadin.



Haurrek esperimentaziorako eta ikerketarako duten grinaren pizgarri izateko eta sormena lantzeko proiektu berri bati ekingo diote elkarrekin Hik Hasik eta Emaus Gizarte Fundazioak urtarriletik aurrera. Horrez gain, proiektuak helburu bikoitza izango du; izan ere, haurrekin prozesu hezitzaile, kultural eta sozial bat bultzatzea lortu nahi da, industriak baztertutako materialari balorea emanaz. Italiako Reggio Emilia eskolen Remida proiektuan du oinarria egitasmoak eta iaz hainbat ikastetxerekin egindako esperientzia pilotuarekin hasitako ibilbidean urratsak sendotzen jarraitzeko asmoa dute orain. Ikasturte honetan, Debagoiena eskualdean zentratuko da Birsortu proiektua eta Emausen Arrasateko eraikinean irekiko ditu ateak bere egoitzak urtarrilean.

GAIA: BIRSORTU

Heziketa, sormena eta kulturari forma ematen

Haur Hezkuntzako gela batera sartu eta egurrezko piezak, paper zatiak, hainbat koloretako oihalak, forma anitzeko tutuak, giltzarrapoak, zeramika zatiak, edota artilea bezalako materialak aurkitzea ez da ohikoa. Haurrei material horiekin esperimentatzen utziko bagenie, ordea, askotarikoak izango lirateke biziko lituzketen esperientziak, ikerketak eta sortuko lituzketen produkzioak: tutuekin egindako telefonoak, oihalekin eta egurrekin osatutako etxetxoak, zeramika zatiekin osatutako mosaikoak, kortxoak edukiontzietan sartu-atera, harriak multzokatu, hari zatiak lotu eta askatu edota helduoi bururatuko ez litzaizkigukeen hamaika funtzio edota produkzio.

Baina nondik lortu material birziklatu horiek? Nola eskuratu tutuak, giltzarrapoak, kortxoak edota egur zatiak? Urtarriletik aurrera horrelako materiala eskuragarri egongo den biltegi bat irekiko da Euskal Herrian Hik Hasi egitasmo pedagogikoak eta Emaus Gizarte Fundazioak elkarrekin abiatutako Birsortu proiektuari esker. Sormena eta berrerabilitako objektuen ikerketa ditu oinarri egitasmoak eta eragile kultural, pedagogiko eta jasangarri izan nahi du. Izan ere, hainbat enpresatik jasotzen diren birziklatutako material anitzak eskolen eskura jarriko ditu,

haurrek esperimentatu, manipulatu eta beste erabilpen bat eman diezaioten. Proiektuaren bidez, haurrek berezkoa duten ikerketa eta esperimentatzeko grina horri erantzun eta aberastu egin nahi da.

Iaz hainbat ikastetxerekin egindako esperientzia pilotua eta gero, ikasturte honetan Debagoiena eskualdean zentratuko da proiektua eta Emausek Arrasaten duen eraikinean irekiko ditu ateak Birsorturen egoitzak urtarrilean.

Hik Hasiko kide Mikel Agirrezabalak azaltzen duenez, hasiera batean 40 m²ko egoitza hartuko du Birsortuk eskolentzako prestatuko den materialaren bilgune izateko. Horrekin batera, material birziklatuarekin hainbat tailer egiteko espazio itxi bat ere izango du aretoak eta Emaus eta Hik Hasi arduratuko dira espazio horien kudeaketaz eta dinamizazioaz. Debagoieneko Haur Hezkuntzako ikastetxe guztiei eta iaz Birsorturen esperientzia pilotuan parte hartu zuten ikastetxeei bideratutako espazioa izango da eta egun jakinetan, arratsalde partean egongo da zabalik, irakasleak bertaratu eta interesatzen zaien materiala hartzeko.

Jasangarritasuna, sormena eta berrerabilitako objektuen ikerketa ditu oinarri proiektuak eta sustatzaileek aipatzen

GAIA: BIRSORTU

Heziketa, sormena eta kulturari forma ematen

dutenez, bi dira proiektu honekin lortu nahi diren helburuak: kontsumo arduratsua geletara eramatea, batetik, eta hezkuntza parte-hartzaileagoa sustatzea, bestetik. Emaus taldeko Idurre Zugazagastik honela zehazten ditu bi helburuak: “Kontsumo arduratsua eta berrerabilpenaren kontzientziario lana egitea da batetik, baina ez eskoletan bakarrik, enpresetatik bertatik hasita eta ekonomia zirkularraren bidetik, geletan ere lanketa eginez. Haurrek txikitatik material askotarikoekin aritzeko aukera izatea nahi dugu, eta ez plastikozko edo helburu jakin bateko materialarekin soilik aritzea. Bigarren helburua, hainbat eskolatan ematen ari den hezkuntza eta pedagogiaren aldaketaren testuinguruan, haurren gaitasunetatik eta aniztasunetik aritzea da. Eta horiek baliatzea, oraindik eta gaitasun gehiago gara ditzaten”.

Sustatzaileen arabera, haurrek material horiekin egingo duten esperimentazioa izango da proiektuaren lan-ardatza, eta hortik abiatuta haurren sormena bultzatzea; “bakoitzak bere izaera eta identitatetik, askatasunez eraikiz”. Esperimentazio hutserako materialak eskainiko ditu Birsortuk, “estereotipo sexistak eta naturalizat jotzen diren rolak saihestuz”. Hik Hasiko Mikel Agirrezabalak azaltzen duenez, “irakaslearen papera behaketa egitea da, material horien erabileran haur bakoitzak bere gaitasunak nola garatzen dituen ikusi, esperimentazioaren bitartez ematen den ikasketa prozesua aztertu eta bidelagun izan”. Zentzu horretan, Hik Hasik irakasleei behaketarako tresna bat eskainiko diela aipatzen du, materialaren erabileraren jarraipena egin eta ebaluaziorako tresna gisa erabiltzeko.



Italiako Remida inspirazio-iturri

Birsortu proiektuaren hazia esan daiteke duela ia hogeitau urte egindako bidaia pedagogiko baten ondotik ernatu dela. Izan ere, 2000. urtean Hik Hasik bidaia pedagogikoa antolatu zuen Reggio Emiliako haur eskoletara eta bidaia horretan izan zen Josi Oiarbide irakaslea eta Hik Hasiko kidea. Oiarbidek kontatzen duenez, “hara joan ginen irakasleoi arreta eman zigun lehendabiziko gauza izan zen zer-nolako materiala zuten geletan. Arandelak, botoiak, oihalak, egurrak... Oso material aberatsa zuten eta haurrek material horiek nola manipulatu zituzten ikusteak harritur handia sortu zigun”.

Reggio Emiliako haur eskoletako materialaren aniztasuna eta bidaiaren amaieran Remida zentroa ezagutzeko egin zuten bisitaren ondoren hobeto ulertu zuten dena. “Remida zentrorra egindako bisitan ikusi genuen han bazela proiektu bat, birziklapenaren kultura eta berrerabilpen sortzailea sustatzen zuen sare oso bat”, dio Oiarbidek.

Remida zentroa, Italiako Reggio Emilia hirian sortu zen 1996an bertako Udalaren eta Enia izeneko enpresaren elkarlanaren ondoren. Jasangarritasuna, sormena eta berrerabilitako objektuen ikerketa ardatz hartuta abiatu zuten pedagogia eta jasangarritasunaren kultura oinarri dituen proiektua eta Reggio Children Fundazio publikoak zuzentzen du. Hainbat enpresetatik eta Lanbide eskoletatik jasotzen dituzten birziklatutako material anitzak eskolen eskura jartzen dituzte, haurrek esperimentatu, manipulatu eta beste erabilpen bat eman diezaioten. Izan ere, fundazioak nabarmentzen duenez, “soberakinak, zaborkinak edota material inperfektuak edertasuna sortu dezakete, hausnarketa ahalbidetu eta hezkuntzarako baliabideak eskaini”.

Oiarbidek kontatzen duenez, “hasiera batean Remida proiektua eskoletara begira abiatu bazen ere, gaur egun bere proiektzioa ez da hezkuntza arlora bakarrik mugatzen. Zentroak jasotzen dituen materialak, egun, artisten, artisauen, zahar-etxeen, eguneko zentroen, kultur etxeetako tailerren eta beste zenbait talderen eskura jartzen dituzte. Modu horretara adinekoek, gazteek, artistek, artisauek... ere materiala erabiltzeko aukera dute”.

Egun, Remida proiektuak munduan zehar 15 lurraldetan ditu egoitzak: Italian Reggio Emiliako zentroaz gain, Neapolen, Turinen, Bolonian, Genovan, Milanen, Florentzian, Robereton eta Varesen; Alemanian, Frankfurten; Argentinan, Buenos Aires-en; Australian, Perth-en; Norvegian, Trondheim-en; eta Suedian, Södertälj-en eta Vaggeryds-en.

GAIA: BIRSORTU



Bidaia hartan izandako esperientziaz geroztik Hik Hasi harremanetan jarraitzen du Reggioko haur eskolekin, eta horren adierazle da Hik Hasiren formazioetan Reggio Emiliako ordezkariak izan duten eta duten parte-hartzea edota berriro ere Reggio Emiliara egindako bidaia pedagogikoak. Remida ezagutzeak sortutako zirrara hura ez zen apaldu urteetan eta Hik Hasin urte asko pasa dituzte gisa honetako proiektu bat hemen sustatu nahian: “Horrelako proiektu bat hemen bultzatu nahi genuen baina ez genuen aukerarik ikusten. Orain bi urte Emaus Gizarte Fundazioarekin harremanetan jarri ginen eta beraiekin urratsak egiten hasi ginen”, dio Oiarbidek.

Komunitatea saretzen

Birsorturen asmoa, Remidarena bezalaxe, kultura, eskola, enpresa eta instituzio publikoen arteko erlazioa sortzea eta indartzea da, eta unibertsitatekin, liburutegiekin, museoekin eta udal administrazioekin proiektu askotarikoak bideratzea. Hik Hasiko kideak aipatzen duenez, iazko ikasturtean harremana egin zuten Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Adegik Gipuzkoako enpresen elkartearekin, Gabiltza Gipuzkoako artisauen elkartearekin, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatearekin, Acede Debagoienako kooperatiben konfederazioarekin eta beste 12 enpresa txiki eta handirekin. Aurrera begira ere, eragile gehiagoren elkarlanetik proiektua sendotzen jarraitzeko asmoa daukate. “Hik Hasi eta Emaus oinarri hartuta, asmoa da aurrera begira ere sinergiak bilatzea hezkuntza, kultura eta enpresa

munduak elkartu eta instituzioekin batera proiektu sendo bat osatzeko”.

Emauseko Idurre Zugazagastirentzat ere sare-lan hori izan da proiektu honen beste oinarrietako bat: “Komunitate zabal honetako hainbat eragilek proiektuan parte-hartzea izan da bilatu duguna; hasi enpresetatik eta hezkuntza komunitateraino, tartean artisauen laguntzarekin eta inplikazioarekin kontatuz”.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Etorkizuna Eraikiz GipuzkoaLab* egitasmoaren baitako diru-laguntzari esker, Debagoiena eskualdean ekingo dio ibilbide berri honi Birsortuk, eta proiektu pilotu baten gisara egingo dute, sustatzaileen arabera, aurrera begira proiektua sendotu eta pixkanaka eskualde gehiagotara iristeko: “Debagoienan abiatuko dugun proiektua pixkanaka Gipuzkoa osora zabaltzea da asmoa. Eta aukera baldin badago etorkizunean baita Euskal Herriko beste lurraldeetara ere”.

Elkarlanean jarraituko dute Hik Hasi eta Emaus eragileek, proiektuaren garrantzia prozesuan bertan jarrita. Birsorturen bi sustatzaileek argi dute gizarte eraldaketarako tresna emankorra dela hezkuntza, horregatik bi ideia oinarri hartuta jarraituko dute lanean: “Alde batetik, prozesuaren beraren garrantzia eta bertan parte hartzen duten pertsonen gaitasunak garatzearen beharra; eta beste aldetik, baita prozesu honetan sortu diren tresna pedagogikoei eraldaketa horiek bultzatzeko duten gaitasuna ere”.

GAIA: BIRSORTU

Heziketa, sormena eta kulturari forma ematen

Zaborra altxor bilakaturik

Aurreko ikasturtean hasi zuen Birsortu proiektuak bere ibilbidea. Joan den urteko maiatzean eta ekainean Euskal Herriko Haur Hezkuntzako 13 ikastetxetan material berrerabiliak probatzeko proiektu pilotua egin zuten. Eskola bakoitzak erabaki zuen materiala nola erabili, bere hezkuntza-proiektuaren eta beharren arabera, eta material horiekin hainbat jarduera egin zituzten haurrek, modu librean zein gidatuan. Hauek izan ziren iazko proiektu pilotuan parte hartu zuten ikastetxeak: Lazkaoko San Benito ikastola, Abaltzisketako Txalburu eskola publikoa, Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastola, Agoitzeko haur eskola, Aretxabaletako Kurtzebarri eskola publikoa, Debagoieneko Arizmendi ikastola, Gasteizko Abetxuko ikastola, Getariako Iturzaeta eskola publikoa, Orioko Zaragueta IPI herri eskola, Altsasuko Iñigo Aritza ikastola, Tolosako Laskorain ikastola, Laudioko ikastola eta Erandioko Altzaga ikastola. Ikastetxe horiei guztiei luzatu zaie aurtengo esperientzian parte hartzeko aukera eta zabalik izango dituzte Arrasateko biltegiko ateak, Debagoienako ikastetxeekin batera, material birziklatuarekin lanean jarraitzeko.

Emaus Gizarte Fundazioko Sheila Padronesek azaltzen duenez, “Hik Hasiren bitartez proiektuan parte hartzeko prest zeuden 13 eskolekin harremanetan jarri ginen. Aldi

berean, hamaika bat enpresetan zabortzat jotzen zuten materiala berreskuratu genuen, eskoletan erabilgarri izateko”. Enpresa horietatik jasotako materiala, gainera, Gabiltzakoekin, Gipuzkoako artisauen elkartekoekin batera prestatu zutela gaineratzen du.

Erandioko Altzaga ikastola izan zen iazko esperientzia pilotuan parte hartu zuen ikastetxeetako bat. Bertako irakasle Leire Saezentzat “ez da erraza batzuetan gisa honetako materialak lortzea. Metodologia berritzen ari garenonzat eta material desegituratuak bilatzen ditugunontzat altxor bat dira material hauek”. Horrez gain, berrerabiltzea “maila pedagogikoan oso hezitzailea” dela ere azpimarratzen du.

2 urteko gelan egin zuten esperientzia eta haurrei materialarekin modu librean jolasteko aukera eskaini zieten, astean bi aldiz. Materialen artean erabili zituzten forma eta neurri askotako egur zatiak, larruzko zati handiak eta tira txikiak, kableak, oihalak, mertzerietako erremate-oihal luzeak, pertxak, arrantzako sarea eta buia txikiak, kartoizko tutuak, kaxa handiak eta txikiak, edota aspiragailu-tutuak. Saezek aipatzen du, sinestezina dela haurrek “zelako irudimena daukaten eta zelako aukerak” ematen dituzten



material horiek: “Arrantzarako erabiltzen den buia bat izan daiteke bolantea, eraikuntzak egiteko pieza edota jaurtitzeko elementua. Egunero bilatzen dizkiete haurrek horrelako elementuei erabilera berriak”. Haurren garapenean aurrera egiteko ere material horiek aukera asko ematen dutela gaineratzen du: “Haur Hezkuntzan ikaskuntza ekinzari lotuta dago, eta material horiek manipulatzeko haur bakoitzak berez garapenerako behar duena landu dezake, bere barneko curriculumari jarraituta. Haur batek objektu biribil bat jaurtitzen duenean edota lurretik errodutzen daramanean ikusten dugu nola ari den pentsamendu zientifikoa garatzen. Berdin elementu estetiko eta artistikoekin konposizioak egiten dituztenean. Pentsamendu matematikoari lotuta, formak, neurria, altuera, distantzia... Horrekin batera, material horiek elkarrekintza eta elkarlanerako jarrera ere bultzatzen dutela ikusi dugu”.

Iazko esperientziarekin “asko gozatu” zutela dio irakasleak: “Batez ere azpimarratuko nuke zenbat gozatu genuen elkarrekin, zenbat gozatu zuten haurrek, zer emozio zegoen, eta zenbat gozatu genuen hezitzaileok”.

Orion geletan eta patioetan

Orioko Zaragueta IPI herri eskolan 2tik 5 urtera arteko haurrei eskaini zieten materiala eta geletan zein patioetan kokatu zuten. Zaraguetako irakasle Ainhoa Zumetak kontatzen duenez, “oso gustura aritu ziren proiektuaren lanketan. Planifikazioa eskatu zigun eta baita sormena ere, helduona ere bai”. Gaineratzen duenez, “eguneroko



jolasean txertatzeko material egokia da eta betiko errutinetatik ateratzeko aukera eman die beraiei”.

Laudiion familiek hartu zuten parte

Laudioko ikastolan familien laguntzarekin osatu zuten birziklatutako materialaren eskaintza. Kasu honetan, 0-2 urtekoen espazioan eta 3-6koen geletan aurkeztu zituzten materialak. “Gure esperientzian, material bakoitzari espazioa mugatu egin genion, eta ume kopurua ere mugatu behar izan genuen”, kontatzen dute Laudioko ikastolako ordezkariak. Balorazioa egiterakoan, material konbinaketaren garrantzia azpimarratzen dute: “Materiala zenbat eta anitzagoa izan, haurrei aukera gehiago eskaintzen zaie”. Ildo beretik, birziklatutako materialak haurrei behatzeko, esperimendatzeko... aukera ematen diela gaineratzen dute, eta horren ondorioz, baita sormena garatzeko ere.





“Ezagutzea besteen bideetan ibiltzea da eta hor arrotza zara beti; jakitea, berriz, zeure bideari eustea da”

ELKARRIZKETA: BENITO LERTXUNDI

KANTARIA

Abesten ez, baizik eta ipuin bat kontatzen entzuten da Benito Lertxundi bere azken lanean: 'Zuhaitzak landatzen zituen gizona'. Ipuin xume bezain sakona, hortik abiatuta bizitzaz eta gauza askotaz hitz egiteko aukera zabaltzen duen horietakoa. Horretantxe aritu da elkarrizketa honetan, bizitzaz, zoriontasunaz, askatasunaz, heziketaz, eskolaz eta kulturaz hausnartzen, besteak beste. Kantaria ez ezik, pentsalaria ere badela erakusten du. Kantagintzako ibilbideaz gain, bi-

zitan egindako ibilia baitu, bere bizipenekin, esperientziekin eta eskarmentuekin. Horrek ematen dion ikuspegiarekin mintzo da, bizitzako unerik onenean dagoela dioelarik. Behin eta berriro aldarrikatzen duen adimen askatasunak eraman du horra, bizitzan lagungarri zaizkion gauzei helduz eta oztopatzen diotenak baztertuz. Uneoro berak antzemanaz, bere adimena entrenatuz, bere bide propioa eginez. Horixe da haurrentzat eta gainerakoentzat ere nahi duena.



**‘Zuhaitzak landatzen zituen gizona’
ipuin musikatua kaleratu duzu. Duela
26 urte argitaratu zenuen eta orain
berriro. Zer dela-eta?**

Madrialdik hona etortzen zen nire jarraitzaile bati –badakizu, gauza arraroak gertatzen dira– nonbait gus-tatu egiten zitzaion nire errezitatzeko modua. Argitaletxe bat zeukan eta ea ipuin honen kontakizuna euskaraz egingo nuen galdetu zidan. Ordura-ko hizkuntza askotan eginak zeuden bertsioak. Hala, Aitor Aranak euskaratu eta nik errezitatu nuen. Kontua da ez dakidala zer gertatu zen disko horrekin. Ez zerurako eta ez infer-nurako gelditu zen, linboan. Elkar diskoetxean eta abar galdetzen nuen, baina inork ez zidan fundamentuzko erantzunik ematen. Jendeak galdetu egiten zidan eta nik ez nuen erantzun zehatzik. Niri pena ematen zidan, oso disko polita baita. Alaba txikitxo-a zenean beti gustatzen zitzaion ipuin bat kontatzea eta nik asmatu egiten nizkion. Gau batean ipuin hau jartzea bururatu zitzaidan, apal-apal gelan, eta izugarri gustatu zitzaion, fun-tzionatu egin zuen. Badauka halako giro liriko bat, gautiarra... Halako zor edo frustrazio bat sentitzen nuen eta disko hau berreskuratu nahi nuen. Eta hemen da, kalean berriro.

Ipuin sakona da. Artzain xume baten historia kontatzen du, baina xumeta-sun horretatik hainbat balio eta mezu transmititzen ditu.

Emaztea eta semea galdu zituen artzain bat da, Proventzako Alpeetan bakarrik bizi dena, toki lehor batean, arditxo batzuekin eta bere txakur leialarekin. Egun batean, egiteko beste ezer hobeagorik ez zuela-eta, egunero ehun ezkur landatzeari ekin zion. Urteen poderioz idorra zen leku hura baso eder batean bilakatu zen. Lehen lehorra zen lekuan ura agertu zen, hango jendarte tristea alaiagoa bihurtu zen eta jende gaztea bertaratu zen bizitzera, bisitariak ugaritu ziren handik eta hemendik... Denek pentsatu zuten naturaren kapritxo bat izan zela gune berri horren sorrera. Artzaina isil-isilik gelditu zen, ez zuen inongo interesik bere burua agertze-ko. Bere obrak ekarri zuen jendea eta berak ez zeukan hitz egin beharrik. Berak egindako obra mintzatzen zen, eta gainera, eraginkorra zen, gauzak aldatu zituelako. Aldaketa lortu zuen, xume-xume, inongo erronka handirik gabe, bere eguneroko bizimodutik, egunez egun. Eta horrela, bere buruari eta inguruari laguntzea lortu zuen, denei laguntzea, gizarteari ere bai. Espiritu sortzaile edo onbera hori du.

“Bazekien isilik egoten, bai baitzekien gauzak baloratzen”, kontatzen da ipuinean. Batzuetan gauzak baloratzea isilik egotea da?

Bai, ez zuen “hara, begira zer egin duen!” esateko behar hori, ez zuen ohore hori behar. Berak ekintza horren nolabaiteko uzta maite zuen. Hori da eman duena eta horrekin oso ordaindua sentitzen da. Jakintsuak, edo nik jakintsutzat dauzkatenak, jeneralean isilik geratzen dira. Ez dira disputetan sartzen, ez bada berehala tratatu beharreko gauza material bat. Isilik geratzen dira, artzaina bezala.

Artzainak lur-rean uzteko moduko aztarna uzten duela aipatzen da ipuinean.

Bai, aztarnak mota askotakoak izan daitezke. Jairoz geroztik fisikoki denok hazten gara oker handirik gabe. Baina barnetik ez. Barnetik halako garapen bat izateko, espi-ritualki hazteko, dogmak frenua dira, ez dute hazten uzten. Hazten joateko aske izan behar da. Aske denak bere adimena baduela esan nahi du eta adimen horrek elikatzen duela, adimen horrek ohartarazten duela guztiaz.

“Beste edonork baino askoz gehiago daki, zorientsu izateko modu zoraga-

ria aurkitu baitu". Zer da zoriontsu izatea? Zer da zoriontasuna?

Artzainaren kasuan, ez da ikusten zoriontasunaren bila ibili denik. Bere sentsibilitatearekin kunplitu besterik ez du egin. "Leku honek hau behar-ko luke" ikusi du eta bere neurrian egiten hasten da. Ez du kontabilitate-rik eramaten, bakar-bakarrik egunean ehun ezkur jarriko dituela. Ez du beste ezer kontatzen. Azkenean, bizitzeko modu bat da, munduan egoteko modu bat.

Ustezko zoriontasunaren bila hasten denak gauza bat du errealitatean: zorigaitza. Ez du zoriona ezagutzen, baina pentsatzen du badela, bere uste-tan badira zoriontsu diren batzuk, eta eredu hori nahi luke beretzat. Zoriona nahi du zorigaitza duelako.

Orduan, zeri heldu behar dio benetan ikerlari serioa baldin bada? Ez dagoenari ala dagoenari? Ikerlari serioak beti helduko dio dagoenari. Horrela, zorigaitzekoa dela ikusiko du, eta zorigaitza zerekin eginga dagoen ikusi beharko du. Aurkikuntza horretan atzerantzko bidea egiten joaten da. Ongi egiten baldin badu bidea, beti aurkituko da mamuekin eta mamu horien egilea bera da. Mamu horiei aurpegia ikustea nahikoa du desagertu daitezen. Ez baitira egiazkoak, gezurrezkoak baizik. Norbere fantasiatik sortutako errezelo batzuk baino ez dira. Orduan, horiek uxatu egiten dira eta uxatzen direnean zer gertatzen da? Ongi gaudela, egoera bare bat agertzen dela. Deabrua kanpora joan da eta ongi gaude jada. Eta ongi baldin bazaude, zeren bila hasi behar duzu?

Esan nahi nukeena da hemen erabiltzen den zoriontasuna alaitasunarekin, ongizatearekin, pozez egotearekin lotuta dagoela pixka bat, besteen aitorenarekin hornitua egotearekin, egoa handitzearekin, zeinen ongi nabilen adieraztearekin, festarekin. Noski, zoriontasun hori oso erraz amildu daiteke. Pertsona bat zoriontsu egitea ez da zaila metodoa antolatzen baldin baduzu. Esate baterako, goraiatu, goraiatu eta goraiatu. Goraiatu eta goraiatu. Pozik bidaliko duzu. Baina ixkina hartan beste norbaitekin topo egingo du agian eta hark justu kontrakoa adieraziko dio. Eta hegan joan

dena brast eroriko da. Ez baita egia, eta egia ez den guztia segituan erortzen da. Zure ilusioak bakar-bakarrik mantentzen du zoriontasun hori.

Ilusioaren sukarra da azkenean.

Egoera ona berez ez da "oso ongi nago" edo "oso gaizki nago". Egoera ona barea da. Egoera barea ongi izatea da, trankil, iraunkorra, eta hori lortzen da gauzak ulertzetik, zorigaitza bera ere erlatibizatuz.

Sormena da, zoriontasuna bezalaxe, asko erabiltzen den hitz bat hezkuntzan, kulturaren eta abar. Zer da zuretzat sormena?

Sormena emozioak sortzea da, bat-batean gauza bat egin eta hori esateko gaitasun artistikoa. Sormena mundu emotiboa ukitzea da.

Baina adi, mundu emotiboa manipulatua egon daiteke, eta oso erraza da hori egitea. Hartzen duzu trapu bat, kolore batzuk jartzen dizkiozu eta galdetzen duzu "zer da hau?". Trapu bat. Baina trapu horri edukia ematen baldin badiozu, trapu honek hau, hori edo hura esan nahi du, trapu honek gu ordezkatzeko gaitu, edo gure ez dakit zer ordezkatzeko du, beti Gu horrekin lotzen bada, edukia ematen diozu. Eta benetan edukiaren jabe zarenean, kontzientzia emotibo bat daukazu eta trapua ikusten duzunean hunkitu egingo zara, trapua ez baizik eta zure ikurra delako. Trapu horrek pertsona bat emozionatuko du harekin eta haren historiarekin identifikatuta sentitzen denean. Orduan, kontzientzia mota hori, hunkitzea, baldintzatuta dago.

Batzuetan oraintxe esan dudan hori gertatzen da, eta beste batzuetan agian gauza abstraktuago bat, norbaiten kontzientzian hain identifikatuta ez dagoena, zerbait arkaikoa, zerbait atabikoa, gauza batekin edo beste batekin ukituta geratzen da pertsona bat. Ez dakigu zer den, baina hunkitu du, mugitu du, ez du axolagabe utzi. Hori da sormenaren gaitasuna: nik gauza bat egin dut, zeinak zuri inpresio bat egin dizun. Inpresioak ez du nahitaez besarkatzeko gogoia izan behar, arbuioa ere izan daiteke.

Nor izan daiteke sortzailea? Ezaugarri jakin batzuk izan behar ditu sortzaileak?

"Artzainaren kasuan, ez da ikusten zoriontasunaren bila ibili denik. Bere sentsibilitatearekin kunplitu besterik ez du egin. Azkenean, bizitzeko modu bat da, munduan egoteko modu bat"

"Erabiltzen den zoriontasuna alaitasunarekin, ongizatearekin, pozez egotearekin dago lotuta, egoa handitzearekin, zeinen ongi nabilen adieraztearekin, festarekin. Noski, zoriontasun hori oso erraz amildu daiteke"

"Sormena emozioak sortzea da, bat-batean gauza bat egin eta hori esateko gaitasun artistikoa. Mundu emotiboa ukitzea da, hunkitzea, mugitzea, axolagabe ez uztea. Hori da sormenaren gaitasuna"



Sortu, denok sortzen dugu. Kontua da izakiok, jaioz geroztik, beti saldu behar diogula zerbait norbaiti. Hemen inor ez da haizearekin bizi. Bestearentzat balio duen zerbait egin behar dugu. Bat zapatak egiten hasiko da, beste bat ez dakit zer egiten, bestea beste zerbait, eta batzuk ni bezala kantua egiten hasten dira. Gizarteko harremanetan horrela da, sare hori dago eta zerbait egin behar dugu.

Gertatzen dena da sorkuntza batzuk beste batzuk baino bedeinkatuagoak daudela. Batzuei beste batzuei baino balio handiagoa ematen zaie, sakratuak ikusten dira. Nire kasuan, nik egiten dudana ez litzateke ezer zuentzako elikadura espirituala ez balitz. Zortea dut egiten dudana hori elikadura bat delako zuentzako, elikadura espiritual bat. Horrek aparteko balioa ematen dio egindako lanari. Zeren espiritua emozioekin, mundu psikologikoarekin... erlazionatuta dago eta espiritua ukitzen duzunean beste balio bat hartzen du. Sorkuntza batzuk ongi egote psikologiko batekin erla-

zionatuta daude eta horrek beste balio bat hartzen du. Zapata batzuk erosten dituzunean, gustura egon zaitezke eta baloratzen duzu, baina lurrean gelditzen dira. Hor badago halako sailkapen bat. Balore kontua da. “Zu oso inportantea zara niretzat” esaten didate askotan, eta alde horretatik, badirudi zapataria baina ekarpen handiago egin dudala horren bizitzan. Baina sortu, denok sortzen dugu.

Hurrek ere bai, hurrek ere sortzeko gaitasuna dute eta haien sormena bultzatu behar dela esaten da. Hala al da? Bultzatu egin behar da, utzi egin behar zaie, erakutsi egin behar zaie...?

Utzi egin behar zaie. Zeren azkenean, umeei bideak erakusten hasten baldin bazara, nolabait baldintzatzen ari zara, pixkanaka edo kolpera, ez dakit, baina inportantea zuk esaten diezuna dela sentituko dute eta ez bearaiei aterako zaiena. Orduan, haiena abortatu egiten dute zureari heltzeko, zu autoritate moduan ikusten baitzaitezute. “Horrek asko daki eta nik ez”,

“nor naiz ni horri kontra egiteko?”, pentsatzen dute. Eta orduan, helduaren bidetik jarraitzen dute. Ez gara konturatzen besteen eskutik helduta doazela, elbarri batzuk direla. Kanpora esku horiek! Askatu esku horietatik! Ni etorri naiz mundu honetara ene motxilarekin, ene ekipamendurekin eta hori jarriko dut praktikan. Hori da erreakzioa, askatasunaren eztanda. Hori egiten duena, barnetik hori sentitu duena salbatuta dago. Bestea ez, bestea alienazio batean egongo da beti, besteen eskuetan, ez da sentitzen gai bere kabuz ezer egiteko. Dena galdetu egin behar du: Nola da hau? Nola da hori? Zer diozu honetaz? Hemendik nora goaz... Hori gaixorik dago.

Zer egin daiteke, orduan, umea ez gaixotzeko eta umeak berak bere bidea egiteko?

Batek edo bestek salatu edo kritikatu nau, ez dute ondo ikusiko nire jarrera eta abar, baina nik nire alaba ez dut hezi. Txikia zelarik, 2 edo 3 urterekin, esan nion “zeure burua hezi behar duzu, hor ikusi nahi zaitut, txiki-txikitatik hasita”. Begira-begira gelditu zen. Noski, ikastolara joaten zen eta ikastolan hezten ari ziren, eta bere gurasoa, berriz, ez zuela heziko esanez: “Nik ez zaitut nire berdina egin nahi. Gainera, ez nuke lortuko. Fotokopia txar bat baino ez zinateke izango. Zu zeu izan behar duzu, zeuk ikasi behar duzu gauzei antzematen, jarri zeure adimena martxan”. Kasu hartan zeure burua-edo esango nion, baina adimena esan nahi nuen.

Batek baino gehiagok esango du zein guraso mota naizen, zein arduragabea. Eta ez, hain zuzen ere erantzukizunak bultzatzen nau horretara. Nik ez diot dena egin eman nahi inori ere. Detaile baten bat edo beste eman nezake nire esperientziatik eta abar, baina gauza horiek besterentzen hasten garenean besterendu ezin direnean... Inorendu ezinak dira. Ikasi, norberak bakarrik ikasten du, besteen informazioa baino ez da, ezaguerara. Oso desberdinak dira jakitea eta ezagutzea, ikasketa eta ezaguera. Ikasketa norberak bakar-bakarrik egin dezake. Norbaitek zerbait askotan errepikatu baldin badio ere –has-

teko, errepikatu dion hori auskalo nondik datorren, kontuz-, behin ere ez da izango nahiko sendoa ikasitzat hartzeko. Beti izango da informazioa, beti izango da erudizioa; “ezagutzen dut, irakurri dut, asko ibili naiz han eta hemen eta ezagutzen dituz gauzak...” Bai, ezagutzen dituzu, baina jakin ez.

Nik alabari esan nion berak antzeman behar ziela gauzei, berari bizitzera laguntzera datozen gauzei. Hau zertara dator? Bizitzen laguntzen dit ala oztopatzen dit? Oztopatzen baldin badizu, ez heldu hari. Bizitzen laguntzen dizunari heldu. Eta hori zuk antzeman behar diozu, inork esan gabe.

Orduan, noiz esku hartu behar du helduak? Noiz egin beharko luke zerbait? Inoiz ez?

Hor unea dago. Unea arriskutsua baldin bada, hau da, arriskuan baldin badago, nik nire alaba arriskuan ikusten baldin badut, argi gorria pizten zait eta orduan parte hartzen dut. Baina beti esango diot “adi!, ongi begiratu, hau ez dut uste onura izango denik zuretzat, baina zuk ikusi onura den ala ez”. Hortik aurrera ni nor naiz ezer gehiago esateko norbaiti? Bere adimen partikularra duen pertsona bati? Edonola ere, batzuetan argi gorria pizten da. Horrek esan nahi du erne egon behar duzula.

Hemen denok gaude guztiarekin harremanetan eta bakoitzak antzeman behar dio noraino bai eta noraino ez. Ez agindu diotelako, berak antzeman diolako baizik. Berak agintzen du bere buruarekin, ez bestee. Gizaki batek, txiki-txikitatik, bere buruaren agintearen sentimendu hori loratzen joan behar du. Orduan aterako da pertsona bat independentea, bere kabuz ibiltzen dakiena, eta gainera, seguraski bizkorra izango da bizkortu delako.

Nola ikusten duzu hezitzaileen edo irakasleen eginkizuna? Nolako ia beharko luke hezitzaileak umeen ibilbidean lagungarri izateko zure iritziz?

Hasteko, egin behar duena da hezitzaile ez izan. Adi egon. Zentinelak bat bezala adi-adi egon, sentsibilitate handiarekin adi egon. Ume bat esperimentatzen ari baldin bada eta bere

adimenari jarraituz okerbide bat hartu duela eta deskuidatu egin dela konturatzeko baldin bagara, hor argi gorria piztu eta adierazi. Haurrak ulertuko du eta zuzenduko du. Ez diozu dogma bat eman, ez, arrisku baten seinalea eman diozu. Arriskutik libratzeko modua eman diozu. Errepikatu egin nahi duela inozoa delako? Beno, ba eroriko da eta orduan erortze horrek nolabait erakutsiko dio, kasu egin ez badu. Azkenean, heziketan erorketak ere onuragarriak izan litezke; erori da, erortze horrek esperientzia bat eman dio, “hau ez dut egin behar gehiago”. Ez da erori gabe geratzen bestee hortik behin ere ez pasatzeko esan diotelako eta hesi bat jarri diotelako. Ez, hesirik ez jarri.

Irakasleak zentinelak bat izan beharko luke, begira dagoena, baina begira bokazioz eta arretaz, grina horrekin. Hori izango litzateke begirale ona. Irakasleak bakar-bakarrik bideratu egin dezake norbait gauza batera edo bestera. Irakasleak informazioa ematen die eta jakin beraiek egin behar dute, umeek. Egitekotan haurrari ateratzen zaion arrastoa edo joera indartu behar du irakasleak. Pixka bat animatu haurra ateratzen zaionera, sakondu. Eta ez zikiratu berari ateratzen zaiona.

Nik erakutsi behar baldin badiot ume bati “hau” nola deitzen den, “hau txirrindua da” esango diot eta berak izen hori erabiliko du besteei adierazteko txirrindu hori nahi duela edo behar duela. Deitura bat ikasi du. Lehen ere bazekien zer zen, bazekien ibiltzeko gauza bat zela, baina ez zekien nola deitzen zen. Orain izen bat daki eta izen hori irakasleak eman dio.

Beste kontu bat da esatea “ibili nahi baldin baduzu, hankak mugitu behar dituzu”. Zer erakutsi diozu? Erakutsi ez, hori norberak ikasten ahal du lasai asko. Baina norbaitek esan zain baldin badago hanka horiek mugitzeko, esan nahi du nahiko elbarria dela, beti bestee esan zain dagoela, besteen eskuetan dagoela. Metafora moduan ari naiz erabiltzen hori. Hankengatik esaten duguna buruagatik ere esan dezakegu, gauza bera da. Burua paralizatuta baldin badago pentsatzen duela berak ez dakizkiela gauzak, irakasleak esan behar diola dena,

“Nik nire alaba ez dut hezi. Batek baino gehiagok esango du zein guraso mota naizen, zein arduragabea. Eta ez, hain zuzen ere erantzukizunak bultzatzen nau horretara. Nik alabari esan nion berak antzeman behar ziela gauzei, berari bizitzera laguntzera datozen gauzei”

“Norberak agintzen du bere buruarekin, ez bestee. Gizaki batek txiki-txikitatik bere buruaren agintearen sentimendu hori loratzen joan behar du. Orduan aterako da pertsona independentea, bere kabuz ibiltzen dakiena, eta gainera, seguraski bizkorra izango da bizkortu delako”



horretarako prestatzen baldin bada, orduan irakasleak esan dionaren berri jakingo du bakar-bakarrik. Zer daki? Izen batzuk aipatzen, baina oso murriztua dago. Aldiz, konturatzen baldin bada berak baduela hori baino askoz gauza ahaltuagoa, bere adimena, orduan erabiltzen hasiko da eta bigarren mailan utziko du irakasleak dioena.

Haurrak bere adimena entrenatzea da gakoa eta horretan lagundu behar dio hezitzaileak, beraz.

Azkenean, irakaslearen egitekoa umearen indarra sustatzea da, umearen energia eta gaitasunak indartzea eta ariketak eginaraztea. Proba bat irabazteko bezala entrenatu egin behar du, egunero lana egin, irakasleak esatearekin ez du irabaziko. Ea nola egiten duen lana, nola hornitzen dituen bere gorputza, bere burua eta bere gauzak behar duen lekuan lehiakorra izan dadin, ezer egin gabe ez baitu irabaziko.

Umeekin nik uste hori dela; satisfaziorik ez eman behin ere, beste galdera bat egin bueltan: “Ikusi al duzu hori nola egiten den, horrek nola egiten duen, zer egiten den...? Hark

nola aurkitu du hori? Bila ibilita. Ibili zu ere bila”.

Hurrek zerbaiten aurrean galdera bat egiten dute eta segituan erantzuna ematen diegu. Kito, ez diozu ibilbiderik utzi. Satisfazioa eman diozu eta jada ez da gehiago kezkatuko horrekin. ‘Kito, badakit’, pentsatuko du. Eta ez daki. Informazioa badauka eta badakiela pentsatuko du, baina edukirik ez du. Aldiz, ume batek galdera bat egiten dizunean beste galdera batekin erantzuten baldin badiozu, ez diozu satisfaziorik eman, harritu egingo da eta berak hasi beharko du bere kabuz, bakarrik dagoela pentsatuko du eta berak bilatu behar duela erantzuna, bestela inork ez diola lagunduko. Horrekin motorra aktibatuko diozu. Sentsibilitate hori beharko luke irakasle batek. Behin ere ez esan gauzak argi eta garbi, ez, aurkituko du berak mugitzen bada. Bestela, umezurtz geldituko da.

Etengabeko entrenamendua behar du haurrak adimena garatzeko. Mugitu egin behar du, mugitu. Izadian, muskulatura geldirik dagoenean, akitu egiten da eta martxan baldin badabil bizkortu egiten da. Orduan, esan

nahi nukeena da, gure adimena, gure burua eta gure gauza guztiak aritu egiten direla, baina aritu ez dogmapean, baizik eta askatasunean aritu. Eta orduan ikusten dituzu gauzak etiketarik gabe, ez daukate adjektiborik, ez daukate bedeinkaziorik eta kondenarik ere ez, hor daude, horiek antzeman behar dira, zer zerikusi daukaten zurekin, zer daukaten zuretzat, zer balio duten... Umeak berak aurkitu dezala hori.

Hori dena posible izateko, nola antolatuko zenuke eskola edo hezkuntza sistema?

Ez dugu sistema egin beharrik. Zergatik egin behar duzu sistema bat? Dena da sistema. Askatasunak ez du posible sistema, ez du sinesten sistemarekin, ezinezkoa da, ez dago sistemarik askatasunarentzat. Sistemak azkenean mugak dira, hesiak dira.

Gaur egungo eskolak gizarte eredia zerbitzatzeko moduko hiritarrak eta parte-hartzaileak sortzen ditu. Hori da gaurko eskola, hori egiten du. Gaur egungo eskoletako irakasleak sistemaren zerbitzariak dira eta behartuta daude irakasten dutena irakastera. Behartuta daude eta hori da transmititzen dutena. Sistema horrek militantzia sortzeko balio du, hau da, zerbitzurako prestatzen du jendea. Baina ez du balio pertsona askeak sortzeko. Askatasun hori besterendu ezina da: zeu egiten zara aske, hor ez dago metodorik, zeu egiten zara aske zeure adimenarekin, gauzak pentsatzeko, ikusteko eta arreta jartzeko moduarekin begiratzen dituzunean gauzak.

Ez da erraza heziketa edo hezkuntza diseinatzea. Haurren garapenerako beti da garrantzitsua adimena. Eta adimenak esan nahi du adi egotea, ez lozorroan, adi dagoen adimena beti egongo da gauzak igartzen edo igarri bidean. Beraz, eskolak behin ere ez lituzke gauzak “honela, horrela eta hala” erakutsi behar. Orain, ofizio jakin bat ikasi nahi baldin badute, gauza bat nola maneatzen den erakutsi nahi baldin bazaie, orduan beste kontu bat da; espezializazioa baldin badago, hor pautak asmatuak daude eta pauta gutxi batzuk eman daitezke. Baina umetan batere ez. Umetako

garaian segituan hastea hau eta hori markatzen, otoitzak ikasten, katekesia ikasten... hori benetako bekatua da. Bekatu asko egiten dira gauzak ontzat hartuta, oso zibikoak eta edukazio onekoak direlakoan. Tontakeriak dira, aberrazio ikaragarriak. Ez da hezi behar, sentsibilitateak bakarrik salba lezake mundua, ez informazio korrante batek.

Zein sentsibilitatez ari zara? Nondik dator sentsibilitate hori?

Jakinduriatik, askatasunaren jakinduriatik. Gauzak datozen bezala antzematen dituzunean lortzen duzu sentsibilitate hori. Azken finean, aurkitzen dituzun gauzak zeureak direlako, zeureak bezalakoak direlako, zeu zaren bezalakoak direlako, natura berbera dutelako. Orduan, segituan besarkatzen dituzu, segituan adiskidetzen zara. Bere xumetasunean agertzen zaizkizu gauzak, dauden moduan, oso modu xumean. Xumea esaten dudanean ez dut esan nahi sinplea, xumea esan nahi dut, zeren xumea baino ezer sakonagorik ez da. Sinplea erdipurdikoa da.

Gauzen bila zabiltzanean, kontzeptualki, hau nahi nuke, hura nahi nuke, bestea nahi nuke... abidan hasten zara. Bilaketa horretan zabiltzanean zeure buruari egiten diozun espetxe batean sartzen zara, eta ez duzu behin ere aurkituko. Zenbat eta ahalegin handiagoa egin bilaketan, orduan eta gehiago urruntzen da nahiko zenukeen hori. Gauzek bilatu gabe aurkitu egiten zaituzte. Baina noiz aurkitzen gaituzte? Baldintza egokietan gaude-nean, William Blakek esango lukeen bezala, pertzepzioaren atea garbiak ditugunean: “gure pertzepzioaren atea garbiak balira, garbiak baleude, guztia den bezalaxe agertuko litzateke”. Bila hasten bazara, uxatu egiten dituzu, zikina baita bilaketa. Baldintza egokietan zaudenean, aldiz, etorri egiten zaizkizu.

Zerk zikintzen ditu pertzepzioaren atea?

Zikintzen ditu printzipiozko edukazioak, printzipiozko militantziak, printzipiozko presondegiak... zeure buruari egin dizkiozun presondegi horiek. Ataka batean zaude, jada ez

duzu inondik ere kontakturik izaterik oro den aberastasun horrekin. Oro antzeman egin behar da aurrena, eta nork antzematen du? Libre dagoenak. Bere kabuz begiratzen dakienak antzematen du oro, eta orduan, oro hor dago eta gauza guztiak etorri egiten dira. Zuk egon behar duzu ate irekietan, ate garbietan. Atea ireki eta garbitzen direnean, denak hor daude, gauzak diren bezala. Inongo edukirik eman gabe, inongo bedeinkaziorik eta kondenaarik eman gabe, gauzak diren bezala dira.

Euskal kulturaren transmisioaren inguruan kezka dago azkenaldian. Zu ere kezkatuta al zaude?

Guk, kontzeptualki, gure Gua daukagu eta Gu horretan geurea transmititu behar dugu. Batzuetan ez da ondo egiten, memoria galtzen da eta pixkanaka Gu hori izateari uzten dio, beste zer baitetan bilakatzeko. Baina horren kontzientzia dutenak saiatzen dira edo saiatu beharko lukete transmisio hori egiten –hobeto edo okerrago, hori gero ikusi beharrekoa da–.

Kontua da gero baino gero gaizkiago egiten dela Gu horren kontzientzia gero eta txikiagoa delako. Bertako batzuk –batzuk lotsagatik, beste batzuk beldurragatik– ez dute Gu hori ongi transmititzen, ez dute beste Gu hori ongi salatzen, ez dira ongi helitzen –politikaz ari naiz–, eta horren baitan gauza asko sartzen dira.

Hori ona da? Txarra da? Hortik atera liteke? Batek pentsa lezake “nik ez dut Gu hori izan nahi, ez hemengo ez hango”. Baina beti eraman beharko ditu poltsikoan Guren dokumentuak. Hortik ez da inor libratzen. “Ez, ni ez naiz inongoa, ni ez naiz ezer, ni naiz ni” esan dezake batek. Bai, baina erakutsidazu poltsikoan daramazuna. Hori erakustera behartuta zaude, eta, lasai esaten duzu? Ez duzu problema hori esateko?

Hemen ez dira gauza horiek esaten, eta alde horretatik horrekin oso haserre nago herri honetan. Oso zaila egiten zait gaur egun transmisioaren beharraz eta ez dakit zertaz aritzea eta hain zurbila eta hain eskasa izatea. Ez dut maite hori. Esan nahi nukena da, pertsonak duintasunez esan behar duela “nirea gaitz bezala ikusten

“Ez dugu sistema egin beharrik. Zergatik egin behar dugu sistema bat? Ez dago sistemarik askatasunarentzat. Sistemak mugak dira, hesiak dira”

“Egungo eskoletako irakasleak sistemaren zerbitzariak dira eta behartuta daude irakasten dutena irakastera”

“Sistema honek ez du balio pertsona askeak sortzeko. Askatasuna ezin da besterendu, zeu egiten zara aske zeure adimenarekin”

“Konplexuz betetako herri xume bat gara eta horri buelta emateko muskulatura behar da, jende emantzipatu asko. Jendeak desobedientea izan behar du”



baduzu, begira zenbaterainoko gaitza den zurea”. Lasai ederrean esan behar dugu hori. Sumendi hori norberari atera behar zaio.

Eta sumendia apaldua ikusten duzu.

Apaldua, lotsatua, zimurtua, uzkurtua, eskastua eta abar. Ni horrek haserretzen nau. Nola ez daukan *letxe txar* gehiago herri honek. Beti egon dira jenio biziak, baina gaizki bideratuak, arrazoibiderik gabe, kontatzen jakin gabe, errelatorik gabe. Oraintxe esan dudan hori, poltsikoko dokumentuarena, oso xumea da eta xumetasun hori oso indartsua da, oso ahaltsua.

Orduan, transmisioa ezin da ondo egin ez delako apenas ezer egiten ongi alde horretatik. Hori ere ulertu egin beharko luke bakoitzak. Nik gauza hauek modu batera edo bestera esaten ditut han-hemenka, baina batzuk martziano bezala hartzen naute, eta beste batzuei belarrarian min egiten die, beharbada ez daudelako horretan edo beste Gu horretan ere eroso daudelako soldata ona kobratzen.

Ez dakit nazionalismoak gaiztoak diren edo ez, baina kontzeptualki Gu bat egina dago eta hor bizitzen gara. Gu horretan bakoitzak bere modura hartuko ditu gauzak: batzuk soldaduska egiten egongo dira, beste batzuk beste zerbait, beste batzuk beren kabuz ibili nahiko dute... Ni naiz horietako bat. Nik nire kabuz ibili

nahi dut. Nire baitan ez dit inork eskua sartuko. Sartu izan didate, ni ere natorren tokitik nator, baina ohartu nintzen. Kultura hori norberak jorratu behar du.

Eskola arloan kultur transmisioa lantzeko hainbat proiektu egiten ari dira, besteak beste, euskal musikaren transmisioa lantzeko. Zer iruditzen zaizu?

Transmisiorik onena euskal musikariei beren kontzertuak egiten laguntzea izango litzateke. Lagundu iezaiezu eta orduan jendeak ikusiko ditu eta sentituko ditu. Eta horrekin tradizio bat egingo duzu. Eskoletan proiektuak egin eta gero kontzertuak egiteko trabak jartzen bazaizkie handik eta hemendik, alferrik da. Oso gauza lanbrotzua da eta nik ez dakit zenbateraino dauden itxurak egiten edo egiazki gauzak nahi dituzten. Ez dut sinesten gaur egun daukagun burokrazian.

Burokrazia kultura mota bat da, izateko era bat. Burokrazia jartzen denean administrazioan, mentalitate burokrata horretatik gauza onik ezin da espero. Eta gaurkoa administrazio burokratiko bat da, ez besterik, ez da politikoa. Ez dago politika usainik. Konplexuz betetako herri xume bat gara.

Zer egin dezakegu konplexu horiek kentzeko?

Horri buelta emateko muskulatura behar da. Muskulaturarik ez baldin badaukazu, ezin duzu ezer egin, hondamendia ikusi baino ez. Muskulatura handia edukitzeak esan nahi du jende emantzipatu asko egotea, batek eta besteak esaten dutenaren aurrean “eta niri zer?” esaten duen jendea. Jendeak desobedientea izan behar du. Noski, desobedientziak maila asko ditu; jende gutxi baldin bada desobedientea, hau da, muskulatura txikia badaukazu, ezin duzu ezer egin, bakar-bakarrik agintzen dizutena kunplitu, bestela kartzelara eramango zaituzte. Baina jendea asko baldin bada desobedientea, muskulatura sendoa lortuko da. Eta zer egiten da milioi bat emantzipaturekin? Kolaboratzen ez dutenekin? Parte hartzen ez dutenekin? Ukatzen dutenekin? Hori oso ahaltsua da.

Ipueko artzainak dio bere bizitzako lanik garrantzitsuenari ekin ziola ezkurak jartzen hasi zenean. Zuk zeure bizitzako lanik garrantzitsuena egina daukazu, egiteke...?

Nire lanik garrantzitsuena izan da eta da, ezinbestean, nire buruarekin gauzei igartzea, horrek bakarrik ematen didalako bizkortasuna bizitzan, horrek bakarrik laguntzen didalako ezerk baino gehiago bizitzan, horrek baino hobeto ez naudelako ezerk eramaten gauero ohatzera. Hori da saririk hoberena. Ez dago sari hobea gorik.




Niri bizitzen gehien laguntzen didan ariketa hori saria da niretzat. Azkenean gimnasia mental bat da eta hortik jasotzen duzuna da saririk handiena.

Nik urte asko daukat jada, baina beti esaten dut urrezko aroan bizi naizela. Niri esango balidate “begira, makiltxo magiko bat daukat, eska ezazu nahi duzuna eta emango dizut. Nahi duzu 20 urtera joan?”. “Ez, ez, emaiozu besteren bati, niri ez”. Nik ez dut nahi ez 20, ez 30, ez 40 eta ez 15. Nik orain nahi dut. Orain oso ongi nago, inoiz ez naiz egon hain ongi. Nik ere badut nire iragana eta badakit ikusten nondik ibili naizen, nola, zer errezelo, zer konplexu eta zer gauza izan ditudan eta abar. Eta orain oso ongi nago.


PIRRITX, PORROTX eta MARI MOTOTS

BIZI DANTZA disko-liburu bikoitza

MUSUA DVD



FAMILIA MILAKOLORE BILDUMA: kartoizko ipuinak



Animalien bikote kartak



www.katxiporreta.eus



Katxiporreta
KOOPE.

Oria etorbidea, 10
Brunet Eraikina 5, E-4
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 368 404

ESPERIENTZIAK

'ITURRIAREN KOLOREAK' PROIEKTUA

Herriko iturri bat berreskuratu dute Lizarran

Lizarrako Remontival auzoan, 1856an eraikitako iturri bat zegoen. Azken hamarkadetan, iturria eta ingurua sasiak hartuta eta utzia egon dira, harik eta Remontival ikastetxeko D ereduko hezkuntza-komunitateak lekua garbitu, txukundu eta berreskuratu duen arte. Esperientzia berezia eta aberatsa izan da azken hiru urteotan auzolanean aritu diren gurasoentzat, herritarrentzat, irakasleentzat eta ikasleentzat, eta txoko berezi bihurtu da Remontival iturria.

*Iturri zaharretik
edaten dut
ur berria edaten
beti berri den ura
betiko iturri zaharretik*
J. Artze

Remontival iturria berreskuratzeko prozesua kezka batetik abiatu zen: umeei kontaktu gutxi dute naturarekin. Lehen Hezkuntzako Encarni Valencia irakasleak eta talde eragileko kideak dio konturatuta zeudela ikasleek naturarekin harreman gutxi zutela. “Gure gelak nolakoak diren behatzen hasi ginen, gure patioa nola zegoen... eta konturatu ginen gure eskolako patioetan ez dagoela naturarik, eta gela barruan dugun natura arbel interaktiboan dagoena dela, sarekoa, ez zuzenekoa. Naturarekiko kontaktu falta hori normalizatuta genuela ohartu ginen, eskolan ez genuela



Remontival ikastetxeko D ereduko hezkuntza-komunitatea oso inplikaturik eta ilusionaturik aritu da proiektuan.

baliabiderik naturarekin erlazionatzeko. Kezka horretatik abiatuta, natura berreskuratzeko, sentitzeko eta bizitzeko beharra sentitu genuen”.

Nahi horrek bultzatuta, ingurura begira hasi ziren, auzotik gora zegoen olibadira, eta hantxe topatu zuten aspaldi herrian oso garrantzitsua izan zen Remontivaleko iturria, sasiz betea, erabat utzia. “Nafarroako Go-

bernuak emandako dirulaguntza bat baliatuz, aitzurrak, guraize handiak eta hainbat material erosi, eta iturria berreskuratzeari ekin genion”, azaldu du Valenciak. Bi ikasturtez jardun ziren ikasleak, irakasleak, gurasoak eta herritarrak lekua garbitzen: sasiak kentzen, iturriaren hormatik ateratzen ziren belarrak eta zuhaitzak kentzen, horma berritzen, harrizko eskailerak



Remontival iturria lehen eta orain.

garbitzen eta erabilgarri uzten, txakurren kakak biltzen... “Ni udaleko langilea naiz”, dio Alfontso Rived gurasoak, “eta hau garbitzera etortzea egokitu zitzaidan. Udaleko langileok oso gustura egin genuen lana izan zen, herriko txoko bat berreskuratzen ari ginelako herritar guztientzat”.

Denen artean, 1856ko iturria berriz bistaratzera lortu zuten. “Iturburu naturala da, han bertan sortzen da ura, eta garai batean jendeak etxera eramaten zuen hango ura, giltzurrunetarako ona zela-eta. Gaur egun, ordea, ura ez da urte osoan ateratzen. Inguruan egin diren eraikuntzen ondorioz, azal freatikoa jaitsi egin da, eta orain, euri gehiago behar da ura ateratzeko. Urtean behin ateratzen da orain, euri edo elur asko egiten duenean. Bitartean, urik gabe egon ez dadin, beste leku batetik ekartzen den ura ateratzen da iturritik”, azaldu du Valenciak.

Natura eta artea uztartzen

Bi ikasturtez lekua berreskuratzea lortu zuten, eta 2018-2019 ikasturtean, beste urrats esanguratsu bat egin zuten: Uharteko Arte Garaikideko Zentroak egiten duen deialdian parte hartu zuten, proiektu bat aurkeztuz, eta hura hautatu egin zuten. “Iturriaren koloreak” izeneko proiektuarekin, gauza gehiago egin zituzten iturriaren inguruan. Talde eragileko Gaizka Zubizarreta irakasleak dioenez, “proiektu honekin, gure bi kezka batu genituen: nola gerturatu naturara, eta nola hurbildu arte-hezkuntzara. Bi puntu horiek uztartu,

eta proiektuarekin erantzun nahi izan genien galderei. Hemen, osagai guztiak genituen: berreskuratutako ingurune natural bat, arte-hezkuntzan izandako esperientzia bat (2017-2018 ikasturtean egina), eta parte hartzeko prest zeuden gurasoak eta hezkuntza-komunitatea. Izan ere, eskolak ikuspuntu garaikide batetik inguruan eragin dezakeela sinesten dugu, eta horri ekin genion”. Proiektuaren funtsa zen iturriaren inguruan hainbat esku-hartze edo jarduera garatzea, ikuspegi garaikide batetik.

Hasteko, proiektuaren berri eman zitzaizkien ikastetxeko D ereduko guztiei: irakasle zaharrei, berriei, gurasoei eta ikasleei. “Langileriaren aldetik mugikortasun handia duen ikastetxea da, eta aurreko bi urteetan egindako lanaren berri eman zitzaizkien irakasle berriei. Garrantzitsua da informazioa edukitzea”, dio Zubizarretak. “Gurasoen kasuan, ikasturte

hasierako bilerak aprobetxatu genituen informazioa emateko. Ikasleen kasuan, aurreko urteetako jardueren jarraipen modura ikusi zuten. Pozik entzun zuten proposamena: lekua-erakiko harremana aberasteko aukera ematen zuten, jarduera gehiago egitea zekarren, eta asko motibatzen zituen horrek”.

Informazioa ematearekin batera, galdetegi bat banatu zitzaizkien denei: ikuspegi garaikide batetik, zer esku-hartze mota egitea proposatzen duzu? Jasotako galdetegietatik, tutore bakoitzak bildutako informaziotik eta ikasleek esandakotik proposamen ugari aurkeztu ziren, eta talde eragile bat sortu zen hori guztia bideratzeko; honako hauek osatu zuten: ikastetxeko hiru irakasleak, Uharteko Arte Garaikideko Zentroko hezkuntzako arduradun batek, udal-arkitektoak eta aurreko urteetan aritutako hainbat gurasok.



Ingurua garbitzen eta txukuntzen.

ESPERIENTZIAK: 'ITURRIAREN KOLOREAK' PROIEKTUA

Hala, ekintzen bidez, proposamen horiek forma hartuz joan ziren, eta, ikasturte amaierarako, emaitzak ikusi ziren.

- **Ikasleen erakusketa:** tutorearekin zer lanketa plastiko egin adostu zuen maila bakoitzak; hau da, naturan dauden elementuetatik abiatuta, zer sortu zezaketen erabaki zuten. Talde batean, iturria irudi gisa hartu, eta mihiseak egin zituzten margotzeko hainbat teknikarekin. Beste talde batean, pertsonaiak egin zituzten harriekin, zuhaxkekien edo adaxkekien. Beste talde batek txorimalo erraldoi bat egin zuen, eta pigmentu naturalekin margotu. Esperimentuak egin zituzten tokiko landareekin eta koloreekin, eta kolore sorta bat aurkeztu zuten. Laugarren talde batek iturriaren balio sinbolikoa eta materiagabea landu zuen, iturri horrek urteetan zehar izan duen balioa. Horretarako, hainbat herritar heldurengana jo zuten, eta haiek txikitzen eta gaztetan iturri horretan zer egiten zuten galdetu zieten. Horrela, iturriarekin harremana izan zuten Lizarrako herritarren testigantza horiekin, bideo bat osatu zuten. Beste talde batek soinuak grabatu eta argazkiak atera zituen, eta proposamen bat egin zuten horrekin. Ikasleen proposamen guztiak erakusketa batean bildu ziren ikasturte amaieran.

- **Trencadis:** Alatz Lopez gurasoak *trencadis* teknika erabiliz, iturriaren

inguruan dagoen eserlekua apaintzea proposatu zuen. “Trenca zer?”, galdetu zioten. “Kolore askotako azulejuak eta baldosak puskatu, eta horiek horman itsastean datza teknika hori. Aproposa iruditu zitzaidan umekin egiteko”, azaldu du Lopezek. Gurasoek kezka apur batekin ikusten zuten mailuarekin azulejuak puskatze hori, eta irakasleak ere ez zeuden oso ziur lortuko zen emaitzaz. Haur Hezkuntzako Txus Urria irakasleak eta talde eragileko kideak gogoan du zer zalantza zituzten: “zer kolore aterako zen, diseinu bat beharko ote genuen aurretik, ez ote ginen oso bortitzak izango hainbeste koloreekin naturagune honetan... Alatzek esaten zigun lasai egoteko, ongi aterako zela, beti ongi ateratzen dela *trencadisa*, eta halaxe izan zen, zoragarri atera zen”. Alatz Lopezek bazekien ongi aterako zela, “bat-bateko teknika bat da, inprobisatua, pentsatu gabea. Ohituta gaude gauzak ongi pentsatuta, planifikatuta eta aurretik dena zehaztuta egitera, eta hau zuzeneko ekintza da. Gainera, emaitza beti ongi ateratzen da, eta gehienek gustukoa izan ohi da”.

Ikasleek ere ongi gogoratzen dute. Gehien gustatu zitzaiena hori izan zela diote: “Etxetik ekarri genituen baldosak. Eta baita mailua, eskularruak eta urpean ibiltzeko betaurrekoak ere, begiak babesteko. Askok gustatu zitzaigun, eta oso polita

geratu da”. Valencia irakasleak erantsi du Remontival ikastetxeko umekin motxilan beti ekartzen dituztela eskularruak: “Estutxea eta erregela bezalaxe, beste elementu bat gehiago da. Izan ere, edozein unetan etor gaitezke hona”.

- **Ibilbide sentzoriala:** Monica Villanueva gurasoak ibilbide sentzoriala egitea proposatu zuen, Alfontso Rivedekin batera. “Naturan gehiegi esku hartu gabe, bertako landareak errespetatuz, egituratu eta bukatu gabeko gauza bat egin nahi genuen”, dio. “Interesgarria iruditzen zitzaidan aparteko materialik gabe zerbait sortzea. Horrela, banbuak jarri genituen zintzilak, eta, mugitzen zirenean, soinua egiten zuten. Enborrak ere jarri genituen, gainetik pasatzeko. Eta usaindun landareak ere bai, bidexkan zehar”.

- Iturriaren ondoan, **arbel beltz bat** jarri dute irakasleek eta gurasoek, iturriaren harrizko hormetan margotu ordez, han margotzeko, idazteko... ikasleek.

- Etxola moduko **egurrezko egitura** bat egin dute, hara igotzeko, azpitik pasatzeko eta abar.

- **Cromlech** forma emanez, enborrak jarri dituzte denek artean lurtean, esertzeko eta lasai egoteko, solasaldiak egiteko edo edozein jarduera didaktikori jarraipena emateko.

Proposamen horiek guztiak biribiltzeko, inaugurazio-ekitaldi handi bat



Trencadis teknikak arrakasta handia izan zuen.

egin zuten. “Alkatea etorri zen”, gogoratu dute ikasleek. “Eta musika-emanaldi berezi bat ere izan zen”, diote. Zubizarretak berretsi digu emanaldi berezia izan zela, “arraroa batzuentzat, erakargarria beste batzuentzat, edo aspergarria, infinitua... Normalean entzuten ez dugun musika izan zen; musika eskolakoek espresuki inauguraziorako prestatu zuten, musika garaikidean eta esperimentalean oinarritua. *Ura* izeneko musika-pieza bat sortu zuten: ez zen harmonikoa, instrumentuen beste erabilera bat egiten zuten... erabat esperimentalak. Uste dugu eskolak beste sentsibilitate musikal batzuk adierazi behar dituela, komertzialak ez direnak eta eskolatik kanpora entzun ohi ez direnak”. Beste ikasle batek poesia errezitaldia du gogoan inaugurazio egunetik: “Iturrian jatorrizko ura urtean 15 egunetan baino ez da izaten, eta guk ur hori hartu egin genuen egun horietan. Ur hori beirazko ontzi txikietan sartu genuen, eta, Joxean Artzeren olerki bat jarrita, parte hartu zuten guztiei banatu genien erakusketa egunean”.

Amaiera-datarik gabeko proiektua

Landutako guztiarekin, bizia eman diote lekuari, eta umeak eskolatik atera, eta hara joaten dira arratsaldea pasatzera. Talde eragileko Zubizarreta irakasleak dio haurrak eskola-orduetatik kanpo iturrira joatea garai-pen bat dela naturarekiko harreman horretan, eta, horrez gain, ikuspegi garaikide batetik hainbat lanketa egitea ere sormenari bide bat ematea izan dela. 2017-2018 ikasturtean Juan Gorritiren bisita jaso zutenean, ikasle batek artea zer zen galdetu zion artista nafarrari. “Artea sentitzea eta ingurunearekin komunikatzea da”, erantzun zion. “Horixe egin du proiektu honek, eta hori egiten jarraituko du”, dio Zubizarretak. “Proiektu honek ez du amaiera-datarik. Ikasketa-prozesua etengabea den moduan, hau ere etengabea da. Ez da izan esku-hartze batzuk egitea eta kito. Aurretik, bi urteko lana egin zen ingurua garbitzen; proiektu honenkin, natura eta artea lotu ditugu, eta, aurrera begira, beste proiektu eta lan batzuk egingo dira”.

Valenciak ikasturte honetako jarrai-



Eserlekua *Trencadis* egin aurretik eta ondoren.



pena aipatu du. “Hezkuntza Departamentuaren dirulaguntza jaso dugu ingurumenarekin lotutako jarduerak egiteko, eta horiek egituratzen ari gara. 6. mailan, esate baterako, sendabelarrak landuko ditugu: ikusiko dugu ea sendabelarrak badauden, ez dauden, zein dagoen, tindaketak egingo ditugu... Abiatu gara, eta ikusiko dugu zer sortzen den eta zer egiten dugun. Beti sortzen dira ezusteak. Iaz, adibidez, 1912ko txanpon bat aurkitu genuen garbitzen ari ginela. Alfontso XII.aren edo XIII.aren garaikoa. Garai hartan Lizarrara etorri zen, eta haren omenez asmatu zuten Larrain dantza”.

Parte-hartze arrakastatsuen gakoak

Lorpen bat izan da iturriaren inguruan ikasleak, irakasleak, gurasoak eta herritarrak biltzea. Zubizarretak dio inplikazio handia lortu dela, eta, horretarako, giltzarri izan direla komunikazioa eta antolaketa. “Hasieratik ondo komunikatuta egon den proiektua izan da, ongi azaldua, oso irekia proiektua aberastuko duten proposamenetara eta aldaketetara. Ez da gauza itxi bat izan, zeren jendeak ez du identifikaziorik sortzen eta lanarekiko motibaziorik pizten itxita dagoen gauza batekiko. Bigarren alderdia antolaketa izan da. Hezkuntza-komunitateko partaide guztien ordezkartza izan duen talde eragilea sortu dugu. Eskolak oso barneratuta duen hierarkia bertikala apurtu, eta modu kolektiboan kudeatu dugu. Denok garbi geneukan helburua proiektua gauzatzea zela, eta serio hartu dugun lana izan da”.

Villanueva gurasoak dio irakasleen

motibazioak erakarri zuela bera, eta baita umeak gozatzen ikusteak ere. “Gune askea da haientzat, eta egiteko gauzak daude, patioko hormigoitik aparte”. Horrez gain, memoriaren kontua aipatu du Lopezek. “Iturri hau aspaldikoa da, eta hori berreskuratzea garrantzitsua da guretzat. Txikitan hona etortzen zirela kontatu digute herritar batzuek, eta leku hori berreskuratu egin dugu”. Urra irakasleak erantsi du gogoan duela 80 urtetik gorako gizon batek eta haren alabak kontatutakoa: biak joaten ziren iturrira, eta bat-batean, alaba konturatu zen berak ez zuela bere alaba iturrira ekarri. Katea apurtu egin zen. “Eta guk katea lotu egin dugu. Horretaz konturatu naiz, eta lotura hori berreskuratzea oso polita iruditzen zait”. Aldi berean, kontatu digu bera 3 urteko haurrekin hasi dela iturrira joaten, eta 11 urtera arte jarraituko dutela. “Psikomotrizitate-gelara joatea izugarria izaten da 3 urtekoentzat, baina, hara edo iturrira joan nahi duten galdetuta, nahiago dutela iturrira diote. Lotura polita lortu dugu, eta mantendu egin behar dugu”.

Ikasleek diote gustatzen zaiela iturrira joatea. “Gorago, gure txabola daukagu egina, eta gustatzen zaigu hor ibiltzea gure kasara”.

Rivedek uste du lortuko dutela txukun mantentzea. “Hazia ereinda dago, umeen lekua da, bereganatu dute, euren sentitzen dute, eta uste dut zainduko dutela eta jarraituko dutela hona etortzen”. Zubizarreta ados dago eta hauxe gaineratu du: “Jarraipena emateko, funtsezkoa da babesa lortzea, eta hori da orain arte lortu dena, hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa”.

EKARPENAK 1

'IZAN' DISKO BERRIA

Iritsi da gelditzeko eta lasaitzeko unea



Lasaitzeko, kontzentratzeko eta erlaxatzeko musika eta ariketa gidatuak biltzen dituen disko berria argitaratu du Hik Hasik: 'Izan'. Marina Pintos piano-jotzaile eta yoga eta meditazio irakasleak prestatu ditu ariketak eta abestiak, duela lau urte 'Orain' diskoarekin egin bezala. Lan hark izan zuen harrera ikusita, abesti berri gehiago sortu ditu orain.

Gutxiago edo gehiago, hobetoxeago edo okerxeago, moldatzen gara gaur egungo bizimoduaren abiadurara. Baina oporrak edo lasai egoteko uneak ere gustura hartu ohi dira. Bada, oporren zain egon gabe, egunerokotasunean une lasai horiek hartzen lagunduko duen diskoa da *Izan*. Ez al da hobea egunerokoan txertatzea une lasaiak eta oporretarako bakarrik ez uztea? Eguneroko hori da kalitatea ematen duena eta horren jakitun da Marina Pintos diskoaren egilea. Urte asko daramatza yoga eta meditazioa lantzen helduekin zein haurrekin eta lanketa horrek dituen onurak ikusten ditu. Diziplina bi horiekin batera soinu

terapiak garatu eta aplikatu ditu urte hauetan zehar. Duela lau urte *Orain* diskoan bildu zituen horiek denak, eta hari jarraipena ematera dator *Izan* lan berria. Hala, behin betiko arreta, erlaxazioa, emozioen kudeaketa eta kontzientzia zabaltzeko ariketa gidatuak eta musika biltzen dira diskoan. Beste modu batera esanda, egunean zehar gelditzen, arnasten eta izaten laguntzeko tresna da.


Abesti berriak sortu ditu eta bi modutara entzun daitezke: musika bera bakarrik, modu instrumentalean, edota ariketa gidatuekin batera. "Horrek entzuten duenari hainbat erabilpen egiteko aukera ematen dio. Alde batetik, musika bera bakarrik entzun de-

zake, musika lasaia. Bestetik, musika hori ariketa gidatuekin; hots, musika entzun bitartean, erlaxazio ariketak egin daitezke esaten denari jarraituz: begiak itxi, hartu arnasa, irudikatu itsasoa edo dena delakoa. Eta hirugarren modua da musika instrumentala entzutea eta norberak gidatzea ariketa, alegia, norberak esatea zer egin erlaxazio ariketa horretan: itxi begiak, hartu arnasa lasai eta abar. Norberak bere erara egiteko aukera ematen du horrek”, azaltzen du egileak.

Instrumentu sendatzaileak

Lan berri honetan hainbat instrumentu erabili ditu piano-jotzaile eta yoga irakasleak: pianoa, bansuria, ontzi tibetarra, monokordea eta koshia. “Azken urteetan instrumentu hauek erabiltzen aritu naiz, harmonikoz betetako instrumentuak. Harmonikoak soinu baten barruan dauden beste soinuak dira eta horiek oso eragin zuzena dute gure ongizatean. Zenbat eta harmoniko gehiago eduki instrumentu batek, orduan eta gaitasun gehiago izango du harmonizatzeke. Eta harmonizatzea orekatzea da, barruan daukagun energia martxan jartzea norberaren ongizaterako. Horregatik iruditzen zait interesgarria instrumentu horiek erabiltzea erlaxatzeke eta meditatzeke, asko laguntzen dute horretan. Askok eskatzen zidaten soinu horiek grabatzeko, eta hemen daude, disko berri honetan”.

Ikasleekin, seme-alabekin, lanki-



deekin, etxean, eskolan, aisialdian... edonon erabiltzeko moduko diskoa da. *Orain* diskoa, adibidez, jardunaldi batzuen hasieran jarri zuten behin. Jardunaldia hasi aurretik jendea kokatzeko eta une horretan zentratzeko erabili zuten. Batzuk korrika iristen dira azken minutuan, beste batzuk ordubeteko bidaia eginda, beste batzuk buruan beste mila gauzeekin... Horregatik, jardunaldia hasi baino lehen bi minutu hartu zituzten ariketa gidatu bat egiteko, eta ondoren, jendea beste modu batera sentitzen zen, lasaitua, zentratua eta jardunaldia hasteko prest.

Bizi Soinu zentroa

Pintosek Bizi Soinu zentroa sortu berri du Irunen (www.bizisoinu.com). Norberaren ezagutzan sakontzeko espazioa da, eta meditazioa eta soinua erabiltzen ditu bitarteko gisa. “Bes-

teak beste, masajeak ematen ditut soinuarekin, eta soinuaren bitartez gauza asko aldatzen dira zeluletan, emozioetan eta buruan. Dena lasaitu eta birkonektatu egiten da. Bi urte eta erdi ibili nintzen onkologikoan zeuden umeekin. Ontzi tibetarra jo eta abestu egiten nien eta zer eragin zuen ikusi nahi nuen. Haien harrera oso ederra izan zen: batzuk lo gelditzen ziren, beste batzuk goxo, lasai, gustura...”. Eragin oso positiboa zuela jabetu zen Pintos eta horregatik eskaintzen du hori Bizi Soinu zentroan. “Soinuak lasaitzen eta barruan dugun energia orekatzen laguntzen du, horrek bere lana egin dezan. Askotan gure barruko energia ez da martxan jartzen burua, pentsamenduak eta emozioak pil-pilean daudelako, sistema immunologikoa ahultzen. Soinuarekin, hori lasaitzen eta energiari bere lana egiten uzten zaio”.



EKARPENAK 2

PEDAGOGIAREN ZEREGINA ESKOLA-ELIKADURAN

Elikatu, hezi, ekin

Bilbon iragan urrian eskola elikadura osasungarri eta iraunkorraren inguruan egin ziren Gozo I. Nazioarteko Jardunaldien baitan, hemengo zein nazioarteko hainbat esperientzia ezagutzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Hitzaldien arloan, elikadura-trantsizioa egiteko hainbat oinarri eta orientazio pedagogiko eman zituzten Gema Celorio eta Mariona Espinet unibertsitateko irakasleek eta German Llerena ingurumen-arloko adituak. Eskola-elikadura hobetzeko gakoak mahai-gainean jarri zituzten euren hitzaldian.



Nola bilakatu eskola-elikadura, oro har, eta eskolako jantokia eremu hezitzaileago? EHIGE eta Bidezko Elikadura erakundeek *Gure Platera Gure Aukera* dinamikaren eskutik, eskola-elikadura osasungarri eta iraunkorri buruzko Gozo I. Nazioarteko Jardunaldiak egin ziren urriaren hasieran, Bilbon. Jardunaldietan, hemengo zein nazioarteko hainbat esperientzia ezagutzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek hiru egunez, eta, hitzaldietan, elikadura-trantsizioa egiteko hainbat oinarri eta orientazio pedagogiko eman zituzten Gema Celorio eta Mariona Espinet unibertsitateko irakasleek eta German Llerena ingurumen-arloko adituak.

Agroecologia escolar liburuan jaso dituzte German Llerenak eta Mariona

Espinetek eskola-elikadura hobetzeko oinarri eta orientazio pedagogikoak, eta gako horiek mahai gainean jarri zituzten hitzaldian zehar. San Cugateko (Herrialde Katalanak) Udaleko Ingurumen Sailean lan egiten du Llerenak, eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan irakasle da Espinet. Unibertsitateko irakaslearentzat, eskolan jatea beste zentzu bat hartzen ari da gaur egun; gero eta garrantzia handiagoa ematen diogu, orain arte izan duenaren aldean. “Jatea mundua eraldatzeko modu bat izan daitekeela ikusten hasi gara, eta, gure proposamenaren bidez, zentzua eman nahi izan diegu hainbat eremutan egiten ari diren urratsei; lekua eman nahi izan diegu”. Llerenak ere abagune polit baten aurrean gaudela uste du: “Eskola-elikaduraren sistema egitura

konplexu bezain interesgarria da, eraldaketarako eremu oparora, ikaslea protagonista hartuta”.

EHUko irakasle eta Hegoa erakundeko kide den Gema Celorio ere ildo beretik mintzo da. Haren ustez, hezkuntza beharrezkoa da mundua aldatzeko: “Freirek zioen moduan, eskolak berak bakarrik ez du aldatuko mundua, baina ez da aldaketa sozialik gertatuko, eskola askatzailerik ez baldin badago. Askotan, zailtasunak izaten ditugu munduarekiko daukagun begirada kritiko hori gure lan-jardunera ekartzeko, izan irakasle, guraso, ekoizle edota gizarte-eragile. Eskolako testuingurura ekarrita, ikasleak ikasketetan aurrera egitea da irakasleak lortu nahi duena, eta, askotan, lausotu egiten zaizkigu lotura horiek, eta hezitzaileok eraldaketarako dugun funtzioa ahanzten zaigu”.

Zertarako hezi elikaduraren garrantzian?

Espinetek argi dauka: “Askotan, irakasleok gauza praktikoak nahi izaten ditugu. Hurrengo egunean, proposamenak eraman behar izaten ditugu ikasgelara, eta, askotan, eguneroko dinamikaren zurrunbiloak pentsatzeko uneak bilatzeko zailtasunak ekartzen dizkigu berarekin”. Egiten dutenari zentzua bilatzeko, honako hau proposatzen du irakasleak: “Hezkuntza mota asko daude eskolan: sexu-hezkuntza, bakerako hezkuntza, jasangarritasuna, elikadura, eta askoz gehiago. Zentzu horretan, nik uste dut honako galderari erantzunak bilatzea falta zaigula, eta erronka bezala ikusten dut: zer-nolako herritarra hezi nahi dugu? Bakeari zentzua ematen dion herritarra, jasangarritasunari ematen diona, elikadurari, etab. Eta elikadura modu desberdin, osasuntsu eta jasangarri baterako hezkuntza herritartasunerako hezkuntzaren zerbitzuan dago”. Hori da lehendabiziko urratsa Espinetentzat eta, hortaz, komunitatean adostutako helburuak bilatu beharra dagoela dio. Bigarrenik, eta hau eremu askotan egiten dugula dio, “etorkizun baterako hezten dugu, eta ekiteko itxarote hori ikaragarria da hezkuntzan. Ikaslearen

patrikan harritxoak jartzen goaz, egunen batean erabiliko dituela pentsatuz. Baina etorkizunerako hezi behar horrek freno jartzen dio heziketarako daukagun gaitasunari. Elikadura-eredu desberdin baterako hezi nahi badugu, eskolan hori bizitzen has gaitezke jada. Hau da, haurrak aukera izan behar du ordezeko eredu bat ikusteko, eta eredu horiek eraikitzeko gaitasun handia dugu eskolan”.

Gema Celoriok ere galdera honetan jartzen du arreta: “Zertarako hezi nahi dugu? Zer lortu nahi dugu? Gustura al gaude bizi garen lekuan biziz? Gustura al gaude jaten dugun bezala janez? Gustura al gaude kontsumitzen dugun bezala kontsumituz? Inporta al zaigu gure inguruan zer gertatzen den? Ulertzen dut niri gertatzen zaidana axola izatea, baina kezkatzen al nau nire bizilagunari gertatzen zaionak? Bidegabekeriaren aurka altxatuko al naiz? Zentzu horretan, oso garrantzitsua iruditzen zait sumintzeko gaitasuna berreskuratzea, suminduratik eraikiko dugulako justizia. Eta horrek honako hau galdetzeraz garrantzitsua: zertarako hezi nahi dugu? Norekin hezi nahi dugu? Eta nola egingo dugu?”

Nolako elikadura eraman nahi dugu aurrera eskolan?

Galdera horien inguruan hausnartu ondoren, eskolan nolako elikadura

eraman nahi dugun aurrera adostu behar genuke, Espineten ustez: “Oso jangela polita presta dezakegu, haurrak osasuntsu elikatzea lortuz, baina haurrak jabetu ere egin gabe zergatik eta zertarako egiten dugun, eta parte-hartzerik gabe? Edota jantokiaz gain, eskolako elikaduran ikasleak lehen unetik herritar gisa parte har dezan nahi dugu?”

Ikaslearen parte-hartzearen ideari tiraka, honela definitzen du Espinetek herritar gisa eskolako elikaduran inplikatzea: “Lehenengo eta behin, ezin ditugu bereiz ulertu jantokia, ikasgela, baratzea eta sukaldea. Bereizita dauden espazio horiek gertuago egon beharko lukete, eta eskola-elikadura egitura guztien artean osatu beharko litzateke”. Bigarren ideia batez ere elikaduraren inguruan kontzientzia hartzearekin lotzen du irakasleak. “Nola egin ditzakegu ikasleak prozesuaren partaide, ditugun erremintak erabilita (komunitatea, curriculum...)?” Horregatik aldarrikatzen du elikaduraren gaineko erabaki-hartze kontziente bat. Hau da, ikasleak jakin behar du zergatik egin dituen gauzak modu batera eta ez bestera, eta, horretarako, ezagutza izan behar du. Zentzu horretan, irakasle gisa ikasleekin lan egiteko “testuinguru zoragarri” baten aurrean gaudela dio unibertsitateko irakasleak. “Horregatik, ezagutza, helburu gisa baino,



“Elikaduraren ikuspuntutik, jatea ekintza politiko bat dela esan dezakegu, baina, benetan ekintza politikoa izateko, beharrezkoa da ekintza eta jakintza, biak, barneratzea. Eskolan ekintzara eramango gaituen jakintza eraikitzeko irakasten dugu”

Mariona Espinet

“Ikastetxe batek elikadura-eredu justuago, jasangarriago eta osasungarriagoak diren proiektuetara trantsizioa egiteko konpromisoa hartzen duenean, ingurunearekin ere konprometitzen da”

Gema Celorio

“Egun eskolan daukagun elikadura-eredu eskasa bera zoragarria izan daiteke ikerlan sakon bat egiteko”

German Llerena

ekintzarako erreminta gisa jarriko nuke, eraldaketara bidean”.

Celorioentzat ere, elikaduraren gaiak “aukera paregabea” eskaintzen du: “Alde batetik, errealitatearen gaineko azalpenerako aukera asko eskaintzen dituelako eta, aldi berean, errealitatea eraldatzeko gaitasun handia biltzen duelako barnean”. Bi kontzeptu horiek funtsezkoak iruditzen zaizkio irakasleari. “Jarduera hezitzailean, ikasleek protagonismo handia eduki behar dute beren irakasteko eta ikasteko prozesuan. Oso garrantzitsua da eskolan lantzen diren jakintza berri guztiek lotura izatea beren eguneroko bizitzarekin. Alegia, loturak egitea haien eguneroko kezkekin eta mundu hobe bat eraikitzeko konpromisoarekin”. Horregatik, elikadura batasun horretan ulertzeak aukera paregabea eskaintzen duela dio, “dagoeneko herritar diren ikasle horiek –ez dagoelako herritar izatera itxaron beharrik, dagoeneko badirelako-, subjektu kritiko eraldatzaileak bihur daitezen”.

German Llerena ingurumen-hezitzaile ere uste berekoa da. Azaldu duenez, eskola-elikadura egitura konplexu oso bat da, aztertu eta landu daitekeena: “Ekoizpenaren eremua dauka, eta hor kokatzen da baratzea; elikagaiaren eraldaketaren esparrua ere badauka, kontsumoaren atala ere barnean du, eta hor dago jangela... Horrek guztiak joko izugarria ematen digu, zer lortzera eta zer eraldatzera iritsi gaitzkeen kontuan hartuta”.

Lore baten metaforaz mintzo da Espinet. “Elikaduraren ikuspuntutik, jatea ekintza politiko bat dela esan dezakegu, baina, benetan ekintza politikoa izateko, beharrezkoa da ekintza eta jakintza, biak, barneratzea. Eskolan, ekintzara eramango gaituen jakintza eraikitzeko irakasten dugu. Baina zer espaziotan gertatzen da elikatzearen ekintza eskolan? Jateak, ekintza politiko gisa, espazio ugari hartzen ditu. Konplexuena jangela da, baina badira espazio gehiago ere, elikaduraren gaia lantzeko proposak direnak. Zentzu horretan, zer egiten dugu ikasgelan? Elikaduraren gaineko kontzientzia hartzeko lanketa egin dezakegu ikasgelan, konpetentzia kritikoak eraikitzeko gunea izan

daiteke, ondoren ekintza zuzenera bidean jartzeko. Hortaz, espazio horien arteko lotura horrek hurbilekoa izan beharko luke. Horregatik hitz egiten dugu loreaz. Irakaskuntzaren begietatik, ikasgela erdian dago, baina lotura argiak behar ditu gainerako espazioekin, guztietan ikasten jarraitzeko. Eskolan ez da ikasgela bizitza daukan eremu bakarra. Gainerako eremuak inguruan daude, eta guztiek osatzen dute eskolako bizitza. Ez dugu nahi gainerako espazioak osagarriak izatea. Zentzu horretan, loreak irudikatzen du batasun hori”.

Haur-eskolen ereduak proposatzen ditu Espinetek inspirazio-iturri gisa: “Interesgarria da haur-eskolak eredu gisa hartzea. Maite ditut haur-eskolak eta duten kultura pedagogikoa. Adibide gisa, oso interesgarria da ikustea etapa honetan nola barneratzen den elikadura ikaslearen eguneroko bizitzan, sukaldeak daukan presentzia, etab. Iturri horretatik gehiago edan behar genukeela iruditzen zait”.

Inguruarekiko konpromisoa

Pedagogiaren ikuspegitik hezkuntzari lotuta, mantso bada ere, berrikuntzak nabari dituzte hiru hizlariek. Espinetek dio irekiagoak diren proposamen pedagogikoak loratzen ari direla hainbat komunitatetan: testuingurura gehiago egokitzen direnak, belaunaldien artekoak...”. Horregatik, pedagogiaren zeregina eskola-elikaduran sakontzen jarraitzeko une interesgarri baten aurrean gaudela dio. Haren esanetan, “elikadurak komunitateak egituratzen ditu, eta curriculum a egituratzen du. Eskolak komunitatearekin batera ekintza eraldatzaile hori nola egituratzen duen ikusteko proposamen egoki bat eskola-komunitatearen barneko hitzarmen sozial berri bat izan daiteke, bai ikaskuntzarako, baina baita aldaketarako ere”.

Ingurumen-hezitzaile German Llerenak azaldu duenez, “egun eskolan daukagun elikadura-eredu eskasa bera zoragarria izan daiteke ikerlan sakon bat egiteko. Eskola baten kontsumo-katea aztertzen hasi, eta ikusiko dugu nagusia gizonezkoa dela, elikagaien eraldaketarako langileak emakumezkoak direla, eta banatzailea edota soroan lan egiten



duena, berriz, atzerritarra, eta azal ilunagokoa. Euskal administrazioek gure zerbitzura jarri dituzten enpresa handi horietan gertatzen denaren gainean ikerlan oparo bat egiteko aukera uzten digu horrek guztiak, eredu hori aldatzea zergatik den beharrezkoa ikusteko. Gauza ekologikoak eta politikak bakarrik azaltzen baditugu, ez dugu jakingo zergatik aldatu behar den eredu”.

Celorio ere eskolako parametroetatik atera beharraz mintzo da. Haren ustez, “ikastetxe batek elikadura-eredu justuago, jasangarriago eta osasungarriago baten aldeko proiektuetara trantsizioa egiteko konpromisoa hartzen duenean, bere ingurunearekin ere konprometitzen ari da. Lurraldearekin loturak eraikitzen ari da, inguruneke eragileekin harremanak zabaltzen ari da, eta zentzu hezitzaile bat ziurtatzen ari da, eskolako esparrutik harago, eremu sozialeraino iristen dena; guztiok senti dezagun hezten ari garela, eraldatzen ari garela, eta ekinean dihardugula”.

Lanari ekiteko urratsak

Elikadura-trantsizioa egiteko urratsei dagokienez, ikastetxe bakoitzaren errealitatea osatzen dutenek eta eskola-eragile guztiek berek pentsatu

beharreko eginkizunak dira. German Llerena ingurumen-hezitzailearentzat, “eman beharreko urratsak, seguruenera, sektore bakoitzean bizi diren tentsioen araberakoak izango dira. Jende asko gara, testuinguruak zeresan handia dauka, eta urratsak gertaeren eta dauden arazoaren araberrakoak dira”.

Mariona Espinetek zenbait urrats proposatzen ditu abiapuntu gisa: “Ikastetxe bakoitzak erreferentziazko ekoizle bat aurkitu beharko luke. Hasteko, ez legoke gaizki bat behintzat aurkitzea. Identifikatzea gertuko zer ekoizle egongo litzatekeen gurekin jarraikortasunez lan egiteko moduan, bere presentziarekin eta lantzen ditugun heziketa-proiektuetan inplikatzeko prest. Beste urrats bat izan daiteke prozesuan inplika daitekeen sukaldari bat bilatzea, eta hark ere zuzenean parte hartzea, ez gelditzea testigantza hutsean. Eta, ondoren, eguerdiko hezitzaileak daude; horiek ere proiektura nola lotu aztertu behar da. Beraz, lehenengo eta behin, komunitate autentiko bat eraiki beharko genuke. Eta autentikoa diodanean, guztiek nahi izateaz ari naiz, eta informazioaren transmisiorako eremu soil ez izateaz. Aitzitik, elkarlanean aritzea izango litzateke

helburua. Elkarlana, eskolan elikaduraren inguruko proiektu zehatzak lantzeko”.

Llerenaren ustez, “sarean lan egitea izango da bidegabekeria desegiteko gakoa. Ez daukagu lan hori guztia egiteko denbora eta bitarteko nahikorik. Beraz, guztien jomugak diren horiek lortzeko, eragile bakoitzaren lana sustatu behar da, eta adostasunak bilatu”.

“Sarean lan egitea izango da bidegabekeria desegiteko gakoa. Guztien jomugak diren horiek lortzeko, eragile bakoitzaren lana sustatu behar da, eta adostasunak bilatu”

German Llerena

GALDEIDAZU

HALLOWEEN ALA GAU BELTZA EUSKAL HERRIAN? NOLA OSPATU?

Halloween, Gau Beltza, Gau Iluna... azken urteotan ospakizun horien inguruko iritziak ugaritu egin dira, aldekoak, kontrakoak, kritikoak... Zer ospatu beharko genukeen Euskal Herrian, zer ez, nola, zein modutara eta abar.

Hori dena ikusita, “zer gertatzen da urriaren 31 iluntzean?” galdera generabilen buruan bueltaka. Hainbat haur eta gaztetxok herriko kaleak hartzen dituzte hamaika herritan, Halloween festa ospatuz. Gainera, galdera horri erantzun nahian hasi ginenean, “Gau Beltza” festa berria zabaltzen hasia zen Euskal Herrian. Bestetik, duela hamarkada batzuk zer egiten zen jakin nahi genuen, adinekoen ahotik. Adinekoen praktikak jasotzeaz gain, haurren bizipenak eta diskurtsoak entzun nahi genituen, eurei ahotsa jarri eta euren esperientziatik hurbildu festa hauetara.

Antropologo moduan, jai, erritu eta egungo fenomenoek ikertzaile moduan, Jaime Altuna eta bioi beti egiten zitzaizkigun deigarriak urriaren 31ren eta azaroaren 1aren inguruan sortzen ziren mugimenduak. Hori ikertu nahi izan genuen antropologia ikuspegitik Eibarko Juan San Martin bekari (2015) esker urtebetez. Landa lanean, hainbat jai eta ospakizunetan barneratu gara, elkarrizketak egin ditugu eta marko teorikoa landu.



JOSU OZAITA

Antropologoa



Antropologo izan gara gaur egunean pil-pilean dagoen jai baten barrenean.

Halloween kaleak hartzen

“Festa kontsumista”, “amerikanada”, “kanpoko”... erantzun horiek eman zizkiguten heldu askok Halloween aipatzean, eta ospatzen zuten haurrak horren biktimatzat hartzen zituzten. Haurrak euren kabuz antolatzen dira festa hori ospatzeko, ikerketan egindako behaketetan ikusi dugunez. Gehienetan, etxe batean taldetxoan edo koadrilan mozarrotu, beldurrezko pelikularen bat ikusi eta kalera ateratzen dira “*truco o trato*” esanaz, goxokiak biltzera eskean. Kaleak hartu ditu Halloween-ek, komunikabide, pelikula, kanpaina komertzial eta abarren bidez, eta baita eskoletako ingeles eskolen eta ingeles akademiaren bitartez ere.

Baina nondik dator jai hori? Samhain festa zeltiarra da Halloween, Gau Beltza eta Arimen Gaudenarekin ospatzen diren jaien jatorria. Antzinako Europa guztian zehar zabalduta zegoen ospakizun honek udaren amaiera eta neguaren hasieraren mugarrak finkatzen zuen: urteko aldi “hilaren” hasiera, non lur eta bizidunek lo egiten zuten udaberria iritsi bitartean. Hiru egunetan zehar hainbat festa eta ospakizun egiten ziren hildakoak bizidunen tokira itzultzen zirela ospatzeko. Aspalditik, be-

raz, heriotzarekin lotutako jaia dirudi, hildakoen arimak etxera itzultzeko egunak baitziren (Frazer, 1995). Negua gerturatzean arima hoztu eta gosetiek baso eta soro biluztuak utzi eta etxearen goxotasuna bilatzen zuten sutan berotu eta familiartekoen ongi etorriarekin sukaldean egoteko. Urtean zehar hildako familia-kideentzat platera jartzea ohikoa zen (Barrera, 2003: 31). Euskal Herrian eta Pirinioetan antzeko ospakizunak jaso izan dira, izpirituek edo arimek jaten zutela uste zen eta hil ostean ere premia berarekin segitzen zutenez janari-edanekin batera lurperatzen ziren eta ofrenda moduan ogia eta argiak ipintzen zitzaizkien (Batzuen artean, 1995a). K.a. I. mendean erromatarrak Europan zehar militarri zabaltzarekin batera, kulturalki ere hedatu ziren, bertan bizi ziren herrien ohiturak bereganatuz, moldatuz eta aldatuz, tartean Samhain festa. VIII. mendean Gregorio III.a eliza katolikoaren buruak, kristau martiriaren eguna azaroaren 1ean ipini zuen, Samhain festaren egun berean. Geroztik, kristau egutegiaren ospakizun egun garrantzitsu gisa finkatu da eguberriekin eta Aste Santuarekin batera. Orduan aldatu zen egunaren izena ere: All Hallows' Eve, Santu Guztien bezpera, ondoren Halloween izen laburtuarekin ezagutuko zena (Arana, 2004).

XVIII. mende amaieran ingeles eta irlandar etorkinek eraman zuten Halloween ospakizuna Ipar Amerikara eta XIX. eta XX. mendean zehar “amerikar identitate berriaren” tradizio propio gisa finkatzeko eta batasun kultural bat sortzeko elementu garrantzitsua bihurtu zen (Barrera, 2003: 189). Eguna, Ameriketako Estatu Batuetako urteko egutegian garrantzia duen ospakizuna da, Pazko ospakizunak edo Esker-Emate Eguna bezala, eta esan daiteke Halloween barrura begira etengabe berritzen eta finkatzen den tradizio kulturala dela baina, era berean, kultur ekoizpenen bidez mundura ere indarrez zabaltzen dena (ibid.).

Oihal kristau eta kapitalista batek



estaltzen duten jentil jai hau, beraz, oso aspaldikoa da eta, antzinako formetan moldaketak egin badira ere, helburua eta logika nolabait mantendu izan da: urteko aldi hilaren etorreraren berri ematea, hildakoak gurtzea, hildakoak gogoratzea edo bizidunen eta hildakoen arteko harremana ospatzea.

Kalabazarekin jolasten ziren gure aitona-amonak

Kalabaza aurpegi festarekin ikustean, Halloween etortzen zitzaigun askori burura, festa horretako sinbolo baita, urria hilabeteko ikurra. Baina halako batean, helduenen ahotik entzun dugu, haurrak zirenean kalabaza edo arbiak baratzetatik ostu, hustu, aurpegi forma eman eta bide bazterretan eta bidegurutzetan jartzen zituztela jendea izutzeko. Gure ikerketaren arabera, oso praktika zabaldua zen, Euskal Herriko toki askotan jasotako testigantzak dioten bezala. Udazken guztian zehar egiten zen bihurrikeria edo jolasa zen –garai honetakoak baitira arbiak eta kalabazak–, baina urriaren 31n, azaroaren 1ean eta 2an gehiago ugaritzen zena, testuinguru erlijiosoan arima eta hildakoak etortzen zireneko ustea eta sinismena zegoelako. Gainera, argiteri gutxiko

kale eta herrietan, kinke batekin etxera oinez joan behar izaten zen garaietan, kandelaren dir-dirak mugimendua sortzen zion buru hari, izugarri bilakatzen zen; askoren ahotan arima, etsaia, sorgina edo deabrua.

Miretsi eta ia Gau Beltza festaren muina bilakatu den praktika hura hurrei loturikoa zen, helduen ikuspegitik “umekeria”, “txorakeria”, jaramonik egiten ez zitzaion kontua. Baina jolasa garrantzitsua da, Huizingak zioen bezala: “Jolasatu egiten dira, antzezpena egiten dute haien jolas eremu propio baten barruan, festa gisa definitutako eremu batean, hau da, pozez eta askatasunez. Horretarako, garaiko mundu bat sortzen dute eta horren eragina ez da bukatzen jolasa amaitzean, baizik eta bere distirak egunero argizatzen du mundua, eta festa ospatu duen taldeari segurtasuna, ordena eta ongizatea ematen dizkio” (Huizinga, 2000: 29)¹.

Euskal Herrian Halloween ospatzen dutenean haurrak jolasean ari dira, jarduera aske batean, helduen presentziatik kanpo: eurak antolatzen dira eta deseraiki dizkigute hainbat uste. Nahiz eta Halloweenek balio kontsumista nabarmenak izan, ia dirurik gastatu gabe ospatzen dute, ihauterietako moztaroen kaxatik mo-

¹ Huizinga, Johan: *Homo Ludens*, Alianza, Madril, 2000.

Hausnarketarako tartea hartzea komeni da, udazkenean zer eta nola ospatu nahi dugun galdetuz geure buruari, baina betiere, argi eduki behar dugu ekimena eduki behar duten protagonistak haurrak direla. Eurei entzun behar diegu eta eurei eman behar diegu hitza. Beraientzat erakargarria den jaia da, beldurra eta sustoaren emozioa sartzen da jolasean. Eta hori dena askori oso erakargarri zaio, eta horiek dira arrakastaren gakoak.

zorroa hartu eta aurpegia margotuta, edota ilea harrotu, aurpegia arimaz margotu eta kamiseta zahar bat hautsita. Jai erakargarria da haientzat, hala kontatu digute. Azken finean, iluntzean lagunartean ateratzen diren lehenengotako aldia da, mozorrotu egiten dira, goxokiak jaten dituzte eta beldurra edo sustoaren emozioa sartzen da jolasean. Eta hori dena, askori, oso erakargarria zaio, eta horiek dira arrakastaren gakoak.

Gau beltzaren arrakasta

Testuinguru honen aurrean sortu ziren hainbat herritan Gau Beltza eta Arimen Gauak, azken urteotan zabalpen azkarra izaten ari direnak Euskal Herri osoan zehar. Oinarrian, lehengo aitona-amonen praktika hori dago, kalabazekin jolastea, eta presentzia nabarmena dute festa honetan. Baina badute desberdintasun bat Halloweeneko kalabazekin: Gau Beltzan kalabazak baratzeak dira. Kalabaza horiekin kalabaza tailerrak antolatu ohi dira heldu eta haurren artean norberak kalabaza desberdin

eta bakarra sortzeko, kale ilunetan beldurra emateko elementu bilakatu-ko direnak.

Festa horiek *berreskurapena* izan ordez, *berrinterpretazio* edo *berrasmatzeak* dira, gaur eguneko errealitateara egokitutako jaiak. Hainbat balio barnebiltzen dituzte: euskaraz dira, mozorroen berrerabilpenari edo sortzeari garrantzia ematen zaio, gaztainedu garai bateko protagonismoa hartzen dute, hainbat herritan Euskal Herriko neguko jaietan oso hedatua zegoen puska-biltze edo eske-errondak egiten dituzte, non herritarrek janaria ematen duten osteraren denetan artean komunitatean jateko. Horrekin batera, esatera berriak sortu dira, “*truco o trato*” ordezkatzeko helburuz, Nafarroako hainbat bailaratan oraindik mantentzen diren azaroaren Ieko haurren eskeetan erabilitako esarak berfomulatuz: “xanduli, manduli, kikirikiiii... eman goxokiak guri!”, edota “txingili, txangili, txango... gau beltza, beltzago... kalabazek argituko, jana eman arte ez gea jungo”.

Tradizio berria sortzean, nahi den zentzua eta balioak emateko aukera ere ematen du, eta baita hainbat gai lantzeko parada ere: heriotza, esaterako. Heriotza ia tabu bilakatu dugun gizartetan, Gau Beltzak edo aurreko

egunek heriotzaren gaia lantzeko aukera ematen dute. Bazirudien globalizazioak kultura ere homogeneizatu zuela, baina bertakoa indartu eta garatzeko aukerak ere sortzen ari direla ohartzen ari gara.


Gau Beltza arrakasta ziurtaturik duen jaia da, elementu oso erakargarriak dituelako, esan bezala. Orain hausnarketarako tartea hartzea komeni da, udazkenean zer eta nola ospatu nahi dugun galdetuz geure buruari. Baina, betiere, argi eduki behar dugu ekimena eduki behar duten protagonistak haurrak direla. Haurrei beraiei entzun behar diegu eta eurei eman behar diegu hitza. Ospakizun hauek haurrekin osatu beharko dira, edo, hobeto esanda, haurrek osatu beharko dituzte. Helduok geure agentzia aitortu beharko dugu. Haien nahiak eta helburuak betetzeko gai diren pertsona gisa hartu beharko ditugu, ospakizun hauetan haur jolasa serio-tasunez eta alaitasunez osatzeko.

Informazio gehiago

- OZAITA, JOSU eta ALTUNA, JAIME: *Itzalitako kalabazek berpiztea. Arimen Gau, Halloween eta Gau Beltzaren haur-ospakizunen ikerketa etnografikoa*, UEU, Eibar, 2008.
- www.gaubeltza.eus



ARGITALPENAK



FRUTAK - ANIMALIAK

Antonio Rubio, Xabier Olaso eta Oscar Villán

PAMIELA- KALANDRAKA

Animaliak liburuak oihaneko piztien multzo ederra biltzen du, guztiak ezberdinak, guztiak adiskide. *Frutak* liburuak gozo-gozoak diren hainbat jakiren eta beroien fruta-arbolen bildumatxoa egiten du. Biak, Ilargian kulunkantari bildumako izenburu berriak dira, 0-3 urte bitarteko haurrentzat.



KIWI HARTZA

David Gauthier

TTARTTALO

Askari bat mozorrotuta. Neskatxo bat hartz azalaren azpian. Basoko haurrak, bitxiak eta bihurriak. Arrakastarik izango ote du festak? Animalien eta gizakien arteko harremanari, sentimenduei buruzko istorio bizia, dibertigarria, berezia... Claire de Gastold ilustratzailearen irudiak bizitasun eta kolorea gehitzen diote istorioari.



ZURE BIHOTZEAN

Jose Mari Sarasola

AUTOEDIZIOA

“Inoiz pentsatu duzu zure bihotzaren barruan zer dagoen? Bertara begiratze- ra animatzen? Goazen bada bidaiari hasiera ematera!!” Proposamen iradokitzaile hori da liburu honen abiapuntua. Jose Mari Sarasolak idatzi ditu testuak eta Iosu Lapeirak egin ditu ilustrazioak. Liburu Ki izeneko panpin batekin dator.




ALTZOKO HANDIA, KUTIXIREN AMONA ETA KUTIXIREN MALKOAK

Koldo Izagirre eta Irimarra

EREIN

Migel Joakin Eleizegi, gigantismo gaixotasuna izan zuen Altzoko gazteari eskainitako bildumako bi liburu berri idatzi ditu Koldo Izagirrek, ohi bezala, poetikotasun handiz. Album formatuan argitaratuak, Irimarrak sentsibilitate handiz ilustratu ditu 2 metro eta 41 zentimetro neurtzera iritsi zen altzotarraren abenturak.



ESKOLA PUBLIKOA

Fito Rodriguez eta Josu Txapartegi

DELTA

Bi kezka daude liburu honen oinarrian. Ikastolei “pribatu” izaera emateko batzuk egiten ari diren ahalegina da kezka bat. Bestea, dauzkagun hiru edo lau sareen artean bizi dugun ez-ikusia edo ezin-ikusia. Bi arazoak aztertzen ahalegindu dira egileak eta eredu amankomun baten beharra ondorioztatu dute. lubakaik eta esklusibismoak utziz.



AZALERAKO IPUINAK

Saróa Bikendi, Peru Magdalena

ETXEGIROAN

‘Azalerako ipuinak’ egitasmoa literatura eta irakurzaletasuna langai dituen Hegoak lantaldearen sorkuntza da (Saróa Bikendi eta Peru Magdalena). Familiek eta hezkuntzako profesionalek estimu handia egin diote proiektuari azken 7 urteotan eta orain diskora pasa dira. Euskal tradizioko eta gaur egungo literaturan sortutako olerki, kantu, hitz joko eta ipuinen sorta biltzen du CDak.

PROPOSAMENA

'Zaldi Urdina' antzezlan

Heroinaz argi mintzo zaie gazteei antzerkia

Heroinak eragindako kalte pertsonal, kolektibo eta politikoaren inguruan hausnartzen du 'Zaldi Urdina' obrak. Gaztetxo baten ihesa du abiapuntu eta gaztetxoak ditu jomugan, haiekin ikastetxeetan heroinaz mintzatzeko proiektu pedagogiko bat ere prestatu baitute.



Gaurko gazte askok ez dute ezagutu ere egin heroinak edo *zaldi zuriak* Euskal Herrian 80ko hamarkadan eragin zuen triskantza. Belaunaldi oso bat kolpatu zuen, eta albo kalteak gutxien-gutxienez hurrengo belaunaldira iritsi ziren. Baina gaurko gazteek triskantza pertsonal, familiar, kolektibo eta politiko haren oihartzunik ez dute entzun apenas.

Isiltasuna, edo argiago esanik, tabua haustera dator *Zaldi Urdina*

antzezlan. Ikusle orokorrari, baina baita gaztetxoei ere *zaldi zuria*-ren ondorioez hausnartzeko parada eskaintzen die Artedrama, Axut eta Dejabu Panpin Laborategia antzerki konpainiek elkarrekin ondu duten laugarren antzezlanak.

Izenburua *zaldi zuria*-ren eguneratze metaforiko bat da, gaurko egunetik begiratzen baitio gertakari historiko hari. Justo Arriolak idatzirik *A los pies del caballo* ikerketatik abiatu, Unai

Iturriagak eta Igor Elortzak idatzi dute gidioa eta bertan jasotzen da ikerketa askok heroina trafikoaren iturria Guardia Zibilaren kuartelera eramaten dutela, eta beraz, agertzen da heroinak sorturiko min indibidual eta kolektiboez gain, beraz isilarazteko xede politikoaren oihartzuna ere. Ximun Fuchs da taula zuzendaria eta zuzendari laguntzaile Ainara Gurrutxaga da. Ander Lipus, Olatz Beobide, Manex Fuchs, Edurne Azkarate, Urko

Redondo, Miren Alcalá eta Oier Zuñiga dira aktoreak.

Hiru belaunalditako aktoreak agertuko dira taulan, 30 urteko aldea dute zaharretik gazteenera: Olatz Beobidek 55 urte ditu eta 15-16 urterekin heroina pil-pilean zegoen garaia ezagutu zuen: “Zorionez, niri bizirautea tokatu zait, baina inguruan ikusi dugu heroinak egin zuen txikizioa. Gero, hiesa ere agertu zen, eta ikusten genuen arazoa ez zela bakarrik drogarekin, eta bat-batean fronte asko ireki ziren: sexua, drogak, harreman motak, eta abar. Mamuak ziren, baina mamu errealak. Halaber, poliziaren esku beltzaren presentziari buruz ere beti entzun izan dugu”. 48 ditu Lipusek, eta hark ere ezagutu zuen antzezlanak kontatzen duen errealitatea: “Ematen du droga hitz egin ezin daitekeen gai bat dela, eta gure herrian, drogaren ondorioz eta drogaren eraginez esan daiteke ia belaunaldi bat desagertu zela. Uste dut horretaz hitz egitea eta informatua egotea inportantea dela, eta gero bakoitzak hartu behar dio neurria”. Haatik, Azkaratek 26 urte ditu eta bere belaunaldia “drogen aurkako kanpaina-produktu bat bezala”-ikusten du, gaiari “beldur handia” izan diona.

Ihesaldi baten arrastoan

17 urteko mutil batek, Aingeruk, techno-musika-jaialdi batean aurrez ebatsi duen zaldi urdina izeneko droga berria saltzen dio beste gazte bati, baina bigarren hori gaizki sentitu, berehala koman sartu eta hil egingo da. Ondorioz, Aingeruk ihes egingo du. Polizia gaztetxoaren bila hasiko da trapitxeroa delakoan, baina baita familiakoak eta lagunak ere. Amets 22 urteko arreba errebeldeak gidaturiko bilaketan. Azkenean, Aingeruren bilaketa arrazoi handiago baten bilaketa bihurtuko zaio herri osoari, eta baita publikoari ere, eta araketa horretan gurutzatuko dira gazteriaren ondoezak eta ametsak, trafikanteen eta interes ekonomikoen boterea, indar polizialen konplizitatea eta politika baten aztarna ere.

Gaztetxo bat historiaren abiapun-


tu, eta gaztetxoak dira, halaber jomugan ere. *Zaldi urdina* antzezlanak ikasle gazteei hitz egin nahi baitie drogaz, zehazki heroinaz, eta baita honek 80etan Euskal Herrian eragin zuen txikizioaz ere. Horretarako, Axut konpainiako Arantxa Hirigoyen hezitzaileak material pedagogikoa prestatu du ikastetxeetan aurrez edota ondoren gaia lantzeko. “Antzerkia irakaskuntzarekin lotu nahi genuen, bi mundu ezberdin izan arren oso lotuta daudelako biak, eta horretarako tresna pedagogikoa eman nahi genien irakasleei”.

Txosten pedagogikoak baliabideak ematen dizkie irakasleei ikasleekin antzezlanaz hitz egiten dezaten. “Gai nagusia 80ko hamarkadan heroinak izan zuen eragina da, baina gai hori hainbat alderditatik landu daiteke ikasgela batean, alderdi historikotik, soziologikotik, literatura aldetik... eta nahi duenak nahi duenean baliatzeko tresna praktikoa prestatu dugu”. Baliabide horien artean, dokumentazio anitza dute eskura, hainbat euskarritan bildu baitute gaiaren inguruko materiala, izan entzunezkoak, idatzizkoak, literatura testuak, bertsoak, artikulua, bideoak...

Ikastetxeek webgunetik bertatik jaitsi dezakete Ikerketa ataletik txosten pedagogikoa eta baita nahi duten materiala, edo bestela, interesatuak dauden ikastetxeek zuzenean eska dezakete.

Antzezlan honek helburu sozial eta pedagogikoa duenez, ikastetxeentzako eskola-emanaldiak ditu *Zaldi Urdina*-k. “Orain arte eman ditugun saioetan sentitzen da irakasle eta ikasleek landu dutela gaia gelan, ikasleen jarrera antzerkian bertan oso interesgarria baita”. Hirigoyentzako garrantzitsua da ikasleek ez hartzea antzezlanaren emanaldia ohiko irteera edo txango bat bezala, lanketa bat izatea interesgarria zaio: “Aurretik nahiz ondotik egin daiteke lanketa, baina interesgarria da egitea. Behin antzelana ikusirik, oihartzun handiagoa izan dezake gaiak ikasgelan lantzen bada”.

Ikastetxe batzuekin urrunago joan dira, eta emanaldiaz eta aurreko



‘Zaldi Urdina’ antzezlan

Fitxa teknikoa:

Artedrama, Axut! eta Dejabu Panpin laborategia konpainien antzezlan.

Gidoia: Unai Iturriaga eta Igor Elortza.

Zuzendaritza: Ximun Fuchs.

Zuzendari laguntzailea: Ainara Gurrutxaga.

Aktoreak: Ander Lipus, Manex Fuchs, Urko Redondo, Miren Alcalá, Oier Zuñiga, Edurne Azkarate, Olatz Beobide.

Bitartekaritza, hezkuntza artistikoa eta kulturala:

Arantxa Hirigoyen

Ikastetxeentzat harremanetarako:

ArteDrama: info@artedrama.com

Tel.: (0034) 615 77 95 11 //

Axut!: info@axut.eus

Tel.: (0033) 678 19 23 97

eta ondoko lanketaz gain, hitzaldi eta tailerrak antolatu dituzte eskolan batzuekin, eta antzokian bertan besteekin. Azken hitzaldi eta tailer horiek, kasu batzuetan, antzerkigintzaz izan dira eta beste batzuetan antzezlanak jorratzen duen gaiaz, *Zaldi Urdina* sorkuntzaz abiatu, ikastetxearen nahien arabera moldatu dute saioa. Horrez gain, Ailaket Arrisku murrizketarako droga erabiltzaileen euskal elkartearen ere prest dago antzezlanaren harira ikastetxeetan hitzaldiak eta tailerrak emateko, Hirigoyenek jakinarazi duenez.

Ikasleekiko harremana sorkuntza prozesutik estua izan da, zuzendari taldeak eta aktoreak obra prestatzen ari zirelarik Ziburuko Piarres Lartzabal kolegioan egin baitzituzten egonaldiak, ikasleekin denborak eta otorduak partekatuz. “Ikasleek ikusi dute hasieratik nola sortzen den antzezlan bat”.

ATZEKO ATETIK



PAPERAREN XARMA

NEREA SORONDO AIZKOLARIA

tzuli askorik gabe diot ez naitzela atzo jaiotakoa. Zaharra ez naiz, baina jada gaztetxo ere ez. Hogeita hamabi urte beteta, nire txikitako pasadizoak bueltaka daukat buruan, eta beti bezala, nostalgia pixka batekin geratzen naiz. Askotan konparatzen ditut lehengo eta oraingo garaiak. Ni ordenagailuekin ez naiz ongi konpontzen, baina, gaur egun, nahitaezkoa da haien erabilera. Lehengo gogoetara itzulita, nik zortzi bat urte izango nituen gure eskolan ordenagailu-gela jarri zutenean. Izugarritzko zirrara sortu zigun astean bitan informatikako eskolak izateak. Pentsa zer diferentzia gaur egungo gaztetxoekin. Egia esanda, ez genuen ezer berezirik egiten, seguruenik *Paintean* jolastu-edo, baina aitzindariak sentitzen ginen. Umetxoan igno-

rantzia eta bizipozagatik izango zen. Koxkortuta, liburuak irakurri behar izaten genituen. Hiruhilekoan bat gutxienez; gero, laburpena egin, eta maisuari eman azkenik. Hiruhilekoan ez zuenak denborarik hartzen, azken astean ordu pila sartu behar izaten zituen. Garai hartan, ez zegoen *rincón del vago* bezalakorik, eta ez zen ohikoa liburua film batean topatzea. Horregatik, bai edo bai irakurri behar izaten zen. Nik gustura irakurtzen nituen paperezko liburuak, batzuk berriak eta besteak zaharrak, anai-arreba zaharragoengandik jasotakoak baina denak ere bereziak. Oraingo liburu elektronikoeekin, irakurketak magia pixka bat galdu du niretzat. Etxeko lanak egitean, guk liburuetatik lortu behar genuen informazioa. Zorteduna bazinen, Elhuyarren hogeita lau libu-

ruko entziklopedia zenuen etxean, eta bestela, zer? Lagunekin liburutegira joan, dagokion entziklopedia hartu, informazioa bilatu, fotokopiak egin (asteko paga utziz), eta etxera lana egitera. Lehenengo zikinean eta gero garbira pasa, ahal bazen *Tipp-Exik* erabili gabe txukunagoa izateko; bestela, hasieratik berriro. Ez ziren lan errazak txikitako buruhausteak, baina bazuten beren xarma. Orain, informazio guztia dugu eskura, ia sobera esango nuke nik. Ez zen bakarrik liburu eta paper pilaren artean galduta egotea, baita lagun artean liburutegira joatea, eskuz idaztea eta lan bat egiazko lana izatea ere, ez kopiatu eta itsatsi bakarrik. Ni nire nostalgiarekin gelditzen naiz, orain ere eskuz idazten nabil... nahiz eta gero ordenagailura pasa behar izan.



XAPOKETAN

KARTA-JOKOA



Ezagutu Euskal Herriko animaliak!

Euskal Herriko lurralde banatako **zazpi ekosistema** eta **42 animalia** ezagutuko ditugu. Karta hauekin **5 jolas ezberdin** egin daitezke: familia jolasa, puzzlea, ezkutaketa eta memoria eta azkartasun jokoak.



Edukiak
Iñaki Sanz Azkue
Biologoa

Ikuspegi pedagogikoa
Lore Erriondo
EHUko irakaslea

Marrazkiak
Eñaut Aiertzagüena

AZOKAN SALGAI!
15€*



POSTERRA SALGAI!
6€*

'ORAIN' CD arrakastatsuaren ondoren



IZAN

Musika eta hitz goxoekin
kontzentrazioa lantzeko erlaxazio ariketak
Marina Pintosen eskutik

Salgai **Durango**ko azokan (Artekale, 18)
eta www.hikhasi.eus-en